

...eta!
Kitto!

2018-X-5

1072 zkia.

sagardo egunak
25 urte

Sagar...
TXOTX!



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorren tratamendua



+ osasun gida

Dentistak

arat
Hortz Klinika

943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com

Toribio Etxebarria, 4 - 1ºesk

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura.

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa

R.P.S. 123/17

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.

bista eder
clinica dental hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa

NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOIA

KIRURGIA
ESTETIKOIA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zkia.

- INDIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOIA
- POSTURA ZUZENKETEN TRATAMENDUAK

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

ARRAGUETA, 20
T.F.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

Ginekologia

GINECOLOGÍA
EIBAR

Dra. Laura Martinez
Dr. Alejandro Recas

Tel: 659 56 13 65
San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardolaura@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

Estefanía
Abanto

- GINEKOLOGIA
- OBSTETRIZIA
- LAGUNDUTAKO UGALKETA

Untzaga, 11 - 1. D 943 70 29 42

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALA:
J.L. Gorostegi

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.200 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– Azkenean lortu dugu... Alfa ez ixtea –

la urtebete pasatu da egoera latz eta mingarria hasi zenetik, eta "ALFAk batzen gaitu"-ko delegatuok, bai kalean, bai prentsan, era guztietako kritika eta irainak jaso ditugu. Hala ere, gertatutakoa gogoratuz eta lasai aztertu ondoren, sindikatu tradizionalak zabalduak gezurren aurrean argi gelditu da estrategiarik eraginkorra lan egiten borrokatzea zela.

Hasieratik argi geneukan, bizi genuen likidazio egoera honetan, sindikatu tradizionalak daukaten konfrontazio estrategiak zuzen-zuzenean enpresaren suntsiketara eramaten gintuela eta, horren ondorioz, lanpostu ororen desagertzea. Baina, ixilpean jasan behar izan dugun jazarpenaz ahaztu gabe, lanean egon garenon borrokak, zuzen zegoena egiten geundelaren ziurtasunak bultzatuta, Eibarko hiriko eta inguruko familia ugariarentzat etorkizun osoa daukan proiektu baten jarraipena lortzera eraman gaitu. Suntsipenean inisten zutenen aurrean, tinko, sortzea izan dugu helburu. Milesker hilabete hauetan lanean egon zareten guztioi; gogorra izan da, baina merezi izan du!!!

Gezurak hankak motzak ditu, eta guk ez dugu gezurrik esan: egoeraren azterketa sakona egin ondoren, orain dela urtebete baino gehiago iragarri genuena oso-osorik bete da. Denbora horretan

egin dugun lanak, konfrontazio borroka molde zaharkituetatik ihes eginda, buruan geneukan helburua betetzera eraman gaitu: denbora luzerako ahalik eta lanpostu gehienei eustea.

Gure lankideen ongizate eta jarraipenaren baitan lan egin dugu, eta euren lanpostuei eustea lortu dugu. Zoritxarrez, lankide batzuk zentzuaren aurka egin eta ondoren guri leporatu digute euren hankasartzea. Bene benetan sentitzen dugu eurengatik, baina bakoitza egin dadila bere erabakien kargu. Gure kontzientzia lasai asko dago, beti egon den bezala. Argi daukagu erantzunkizun osoz jokatu dugula, gure lankideen eta Eibarko hiriarentako onena dena egin dugulako. Eta emaitzak dira horren erakusle.

Alkateari ere eskertu nahi genioke, lantegitik pasatu den bakarra izan delako, langile guztion bertsoiak ezagutu ahal izateko; horren ondorioz lanean geunden langileekiko errekonozimendua izan zuen, eta herrian euren ikuspuntu bakarra inposatu nahi zuten gezurtien gaitzespen bortitzaren aurrean jarriera ausarta erakutsi zuen. Bizitako egoera honek argi erakutsi digu sasoi berrietan ez dutela balio estrategia zaharkituek. Eta bai, lortu dugu. Batzen gaituen proiektuak aurrera jarraitzen du. Buru gabeko borrokak, buru gabe uzten zaitu!!!

Falfak Batzen Gaitu (Alfa En Común)

ERREDAKZIOAREN OHARRA:

Datorren asteko barixakua (urriaren 12a) jai-eguna denez, alea egun bat aurreratuko dugu eta eguenean kaleratuko. Hori dela eta, zorian-agurrak eta bestelako informazioa jasotzeko azken eguna martitzena izango da (hilaren 9a).

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MARTI. - Martxo. Baserrietan eta jende nagusiaren artean erabiltzen da. Kalean eta gazteen artean **martzo** gehiago. "Euzkixa ta eurixa, martiko/martzoko egualdixa". "Hórrek gora-beherok beti martixan/martzuan izaten dittuk".

astean esanak

"Gizartea lasaitu egiten da gaizkileak kartzelan daudela pentsatuz. Gainera, herritarrei ulertezinak egiten zaizkie zirrara handien sortzen duten delituak. Horregatik, gertaera horiek ulertu ahal izateko, jendeari laguntzen dio pentsatzeak delitugileak arazoren bat duela edo psikopata hutsa dela. Horrela, delitugileen kategoria bat sortzen dugu, esanez 'jende hori ez gara gu, gu ez gara anormalak'. Baina hori gezurra da: mundu guztian diren delitu gehienak aurrez ezagutzen ziren pertsonen artean gertatzen dira"

(JOSE LUIS DE LA CUESTA, KRIMINOLOGOA)

"Laster jarriko ditugu martxan gurean irakurketa klubak. Ederki funtzionatzen dute, jende askotxo biltzen da. Lehengoan niri tokatu zait klub batera idazle gisa joate. Nire liburuz mintzatzera. Jende majoa oso, denak niri begira. Mahaiburuan jarri ninduten, hoguei bat izango ziren. Halako batean hasi ziren galderekin: ez nire gustukoak denak, ez errazak batzuk. Konturatu nintzen ondotox atera ziotela mamia liburuari, gehitxo ere bai batzuetan. Irakurle zorrotzak guztiak. Bueno, fikzioa da, gauza asko asmatu ditut, nolabait hezurda da benetakoa... Asko ikasten da irakurleengandik, terapia bat da hau niretzat"

(KARLOS LINAZASORO, IDAZLEA -EIBARRIN IZAN ZEN-)

"Beti uste izan dut euskara batua egoki egin zela. Gizarteratzea, berriz, ezin okerrago egin da. Espainiak eta Frantziak euskararekin duten jokabide berbera hartu da Euskal Herrian batuarekin eta euskalkiekin: batua goitik behera ezartzen eta batuz beste goitik behera ezartzen ahalegindu gara, eta agerian daude ondorioak: jende askok euskalkiak gutxietsi eta gaitzetsi egiten ditu. Eredu hobeak badira, herrialde eskandinabiarran, esaterako: han biak babesten dira, dialektoak eta estandarra. Bide egokia izan daiteke guretzat ere, baina ez du ematen ikuspegi horrek hemen jarraitzailek duenik"

(KOLDO ZUAZO, HIZKUNTZALARIA)

Elikagaien Bankurako 1.800 kilo batu zittuen aurreko asteburuan

Citroën Zaer Motorrek eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuak aurreko astebururako prestatu eben erronkak primerako erantzuna izan dau jendiaren aldetik eta, bi egunetan, lau Citroën Berlingo furgoneta barrixak janariz (lekale, esne, pasta, olixo, pardel eta beste hainbeste) betetzia lortu eben. Bildutako guztia Elikagaien Bankuak Bergaran dakan instalaziñuetara eruan eben, han dana sailkatu eta, ondoren, eskualdian premiña gehixen daken famelixen artian banatzeko. Erronkan lagundu eben guztien artian Eibar Merkataritza Gune Irekiak emondako 100 euroko hiru erosketa-txartel zozketatu zittuen eta irabazliak Cristina Borrajo, Mamen Alberdi eta Iban Mendoza izan ziran. Erronkaren antolatzailliak erronkan lagundu daberen guztieri eskerrak emon nahi detsez. Bestalde, azaruaren 30ian eta abenduaren 1ian supermerkausetan egingo dan elikagai batze berezixa egitteko boluntarixo jarduteko jendia



bihar dabela emon dabe aditzera. Baten bat laguntzeko prest egonez gero, 943 76 21 90 telefonora deittuta emongo detsez azalpen guztiak.

Gabonetako otarrerako rifak prest dittu ...eta kitto!-k

Eguaztenian presentau eban ...eta kitto! Euskara Elkarteak, El Corte Inglesaren laguntasunari esker, aurtengo gabonetan zozketatuko daberen otarra. Alkarteko Maider Aranberri eskerrak emon zetsazen El Corte Inglesari, "aurten be gurekin bat egin eta babesa emon deskuelako". Aurreko urtietan bezala, aurten be 2.000 euroko otarra eruangor dau zozketako zenbaki saritua dakanak: 1.500 euro produktuetan (edarixak, kontserbak, hestekixak, turroiak... dan-danak kalidade gorenekuak) jasoko dittu eta, horrekin batera



Joana Fernandez eta Maider Aranberri eguazteneko aurkezpenian.

500 euroko erosketa-txartela be eskuratuko dau, diru horrekin nahi dabena erosteko.

Urriaren 11n, eguenian hasiko dira ...eta kitto!-kuak rifak saltzen, euro batian, baiña kalian

ez eze ohiko tokixetan be (denda, taberna eta hainbat establezimendutan) ipiñiko dira salgai. Zozketia abenduaren 12xan egingo da eta irabazliak 15 eguneko epia izango dau sarixa jasotzeko. Antolatzailliak herritar guztiak animau nahi dittu txartelak erostera, "holan alkartari laguntza emoteko. Rifak salduta lortzen dogun dirua urte osuan euskeria bultzatzeko egitten dittugun jarduerak antolatzeko erabiliko dogu. Hortaz, zozketarako rifak erosterakuan, sari edarra irabazteko aukeria izatiaz gain, gure proiektuari lagundu eta babesa emongo detse".

Larrialdi zerbitzuak Anbulatorixuan eta ospitalian egongo dira

Otaola etorbideko ospitala hillaren 22an zabaltzen daberenian, eibartarrak larrialdi zerbitzuak erabiltzeko aukera bi-koitza izango dabe: T. Etxebarria kaleko



anbulategixan oin arte funtzionatu daberen moduan jarraituko dau eta, horrez gain, sub-ague duen Ospitalian be ezarriko dabe beste bat. Anbulatrorikoko ordugegixa honakua izango da: asteleheneetik barixakura, 17:00-etatik 00:00-etara, eta asteburuetan goizeko 09:00-etan hasitta 00:00-ak arte. Ospitalian, bestalde, astegunetan 17:00-etatik goizeko 08:00-ak arte artatuko dabe jendia, eta asteburuetan 24 ordukoa izango da zerbitzua. Bestalde, toki ba-



tian zein bestian zerbitzu bera eskinduko dabe, oin arte bezala lehen arretako sendagillien eskutik, eta larritasun haundixagua dakenak Mendaroko Ospitalera eruangor dittue.



Aurreko domekan abiatu zan Debabarreneko VII. Aste Ekologikua, Untzagan egin zan azokarekin. Malen Illarramendi

Basarrietara doaneko bisitak egingo dira Debabarreneko Aste Ekologikuan

Domeka goizian Untzagan egin zan Eibarko Azoka Ekologikuarekin abiatu zan Debabarreneko VII. Aste Ekologikua. Eguraldixa lagun, goiz osuan jende asko ibilli zan plazan ipiñi zittuen postu guztietan. Azokarekin batera, Biolur eta Debemen alkartiak, Eibarko Udalarekin batera antolatu daben egitarauaren baitan, basarri bittara jua-teko aukeria egongo da. Bixar izango da le-

hen urteeria, Mutrikuko Basailun basarria. Eta bigarren bisita hurrengo asteburuan, urriaren 13an egingo dabe, Eibarko Sosola basarria (10:00etatik 13:00era). Parte hartzera animatzen diranak ogigintza, abeltzaintza eta gaztagintza ekologikua ezagutzeko aukera polita eukiko dabe. Bisitak duan dira, baiña aurretik izena emotia eskatzen dabe, 943 761447 telefonora deittuta (Biolur).

asteko
5.200
datua

agiritik gora (4.000 NAN eta 1.200 pasaporte) tramitatu dittue Eibarko buleguan, urtarrillian zabaldu ebenetik. Lehen hillian 400 bat agiri egin zittuen, baiña behin martxa hartuta hillian 700/730 NAN eta 120/150 pasaporte tramitatzen dittue.

Bidezko merkataritzako produktuen salmentarako webgunia martxan

Proyde – Proega fundaziñuak bidezko merkataritzako produktuak erosteko aukeria eskintzen hasi da interneten, asmo horrekin martxan ipiñi daben webgunian: www.bidezkomerkataritza.proyde-proega.org helbidian sartuta erosi leikez produktuak: azukrea,



Bidezko merkataritzaren sustapena

karameluak, infusiñuak, kafia, mermelada eta beste hainbat. Erosketa egin eta gero, produktuak Eibarko La Salleko ikastetxietan (Isasin edo Azittaiñen) jaso leikez. La Salle ikastetxiak 'Bidezko merkataritzaren aldeko ikastetxia' agirixa lortu eban maiztarian eta, hortik kanpora be, Proyde – Proega La Salleko GKE-ak urtiak daroiaz alkartasun proiektuetan biharra egitten.


autuan

1959-XAN JAIXOTAKUAK

Urriaren 27xan egingo dabe bazkarixa 1959. urtian jaixotakuak, Kasinuan (Eibarko Bizikleta Plazan). Aurretik, baiña, Untzagan alkartuko dira, 12:00xetan. Juan nahi dabenak 70 euro sartu biharko dabe, izen-abizenak argi azalduta, Banco Sabadelleko (Bidebarrieta, 7) ES28 0081 4362 6200 0120 6823 kontu zenbakixan. Informaziño gehixagorako eta zalantzak argitzeko, idatzi nacidos1959@gmx.com helbidera.

ORAIN PRESOK AGERRALDIXA

“Orain Presok” ekimenaren barruan urriaren 20an Donostian egingo dan manifestaziñuaren aurkezpena egingo dabe gaur arratsaldian, 19:30xetan Untzagan (harmailletan). Eibarko Sarek ekitaldixan parte hartzera animatzeko dei egin nahi detsa jende guztiari, agerraldixa jendetsua izatia nahi dabe-eta.



“JANA EZ DA TXANTXA” BAZKARIXA

Egoaziaren eskutik, aurten be Peruko nekazarixeri laguntzeko bazkarixa antolatuko dabe. V. Bazkari Solidarioa urriaren 20xan izango da, Untzagan, eta tiketak ohiko tokixetan ipiñiko dittue salgai (Guridi, Kontent, Koskor eta Kultu tabernetan eta Villalba supermerkatuan), 12 eurotan (9 eurotan ume, langabetu eta jubilatueendako).

TUTULUMENDI



IDURRE
IRIONDO

Arrakastatsua izan da Amañako Jai Batzordiaren eskutik egindako jaialdixa

Amañako jaixak 40 urte bete dittuela eta, Eibarko herrixari urte guzti honetan emondako laguntzaren-gaittik eskerrak emoteko, barixaku eta zapatua ekin-tzaz bete zittuan Amañako Jai Batzordiak. Barixakuan Mugi Panderoa eta Raimundo Amador Untzagan zuzenian entzuteko aukeria izan genduan, bestiak beste. Eta zapatuan, barriz, herri-bazkarixa, puzgarriraxak, txokolata-jana eta bertso-poteua egin ziran, gabian Pappas eta Stai Zittok musikarekin egitaraua agurtu eben arte. Bestalde, Jai Batzordiak saldu zittuan rifaren zozketan, honek izan dira zenbaki sarituak: 4222 (1. lotea), 1242 (2. lotea), 8554 ETA 2227 (bizikletia).



Gazte jendia be gerturatu zan euren gustoko musikia entzutera. Malen Jainaga



Eguraldixak erantzutia garrantzixua izaten da Agiñagan. M. Illarramendi

Primerako giruan ospatu zittuen Sanmiguelak Agiñagan

Barixakuan, San Miguel bezperan hasi eta domekara arte, primerako giruan pasau zittuen jaixak Agiñaga auzuan. Zapatuan meza nagusixa ospatu eben, Usartza Txistulari Taldiak lagunduta eta, hortik aurrera, egun osuan jarraitu eban jaixak. Eta domekan, barriz, goizeko mezia entzun eta gero hamarretakua egin eben. Egurdixan Gorixo eta bere aberiak egon ziran, Marina eta Letu trikitilariraxak girotu eben paella-jana hasi arte. Arratsaldeko briska txapelketia jokatu eta gero, zozketarekin agurtu zittuen jaixak, datorren urtera arte.

Kataluñiari alkartasuna adierazteko konzentraziñua egin zan 1ian

Euskal Herriko beste toki askotan egin eben moduan, Eibarren be alkartasuna azaltzeko alkarrataratzia egin zan astelehengan, Kataluñian egindako erreferendumaren lehen urteurrenien. Gure Esku Dagok deittuta, arratsaldian egin zan "Askatasuna erabakitzea da" goiburuari jarraitu zetsan konzentraziñua, Untzaga plazan.



Nagusixen birak Eibarko Udaleraiño ekarri zittuan jubilauren eskaeriak

Astelehena Pertsona Nagusixen Naziñoarteko Eguna izan zala eta, horren harira, AGIJUPENS Gipuzkoako Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarteak bere eskaeriak Eibarko Udaleraiño ekarri zittuan, egunotan Gipuzkoako hainbat herritan egin dabena Nagusixen Bira goizian gurera ailegatu zala aprobetxatuta. Elgoibartik etorritakueri Azitaiñen harrera egin eta, jarraixan, Untzagaraioñe jua ziran jubilauek, astelehenero egiten dabena moduan udaletxe parian alkarretartzeko. Baiña aste honetako kontzentraziñua berezixa izan zan, Eibarko Udalian aurkeztu dabena adierazpena irakorri ebe bittartian, Miguel de los Toyos alkatia plazan egon zalako jubilauek eta pentsiodunen eskaeriak bertatik bertara entzuten. Pensiño duiñak bermatzeko sistema publikua eskatiaz gain, beste eskaera batzuk egin zetsazen zuzenian Udalarari: erretirodunen zentru edo guneekiko harreman instituzional hobia bultzatzea; zentru edo gune horren jasangarritasun ekonomikua bermatzea; pensiño duin eta zuzenago baten alde egiten dabena eskaeria babestia; era guztietako hesi eta traba arkitektonikuek ezabatzea; Udalak "Euskadi Lagunkoia" proiektuekin bat egittia; herri maillako Pertsona Nagusixen Kontseilluek bultzatzea; bizitza guztirako



Asteleheneko bira Eibarko udaletxean amaittu zan.

izan bihar dabena heziketa aktibua bultzatzea; domotikaren aldeko apustua egittia bai jubilauren alkartietan baita nagusixen etxietan be; eta gogoz kontrako bakardade eta isolamentuarekin amaitzia.

Manifestaziñua bixar eguardixan

Asteleheneko agerraldixa amaittu aurretik, Adinekoen Elkarteetan Plataformak eta Gi-

puzkoako Pentsiodunen Mugimenduek bixarko manifestaziñua deittu ebe, pensiño publikuen defentsaren alde. Horrekin batera Euskadin 1.080 euroko gitxieneko pensiñua, jasangarritasunaren faktorea indargabetzia eta pensiño pobriak eragiten dituan genero-etenarekin eta enplegu eskasarekin amaitzia be eskatuko dabe. Untzagatik abiatuko da manifestaziñua, 12:00xetan.

Prest dago Urki CD taldiaren 40. urteurrena ospatzeko programia



Urrirako preparau dabena programa berezixarekin ospatuko ditto 40 urtiak Urki CD taldiak. Urriaren 18tik 28ra bittartian klubaren sasoi diferentietan egindako argazkixak erakutsiko ditte Untzagako jubilauek etxian. Urriaren 26tik 28ra bittartian, barriz, Untzagan txosna zabalduko dabe. Eta urriaren 27xan herri-bazkari-xa egingo dabe lpur sagardotegixan. Antolatzaillak azaldu dabenez, "postriak musikarekin girotuta egongo dira eta jokalarixak ez eze, jokalari-ohiak, taldiak entrenatzen jardun dabena, gurasuak eta lagunak be izen-emotia espero dogu, ederto pasauko dogu eta". Bazkarira jua nahi dabena lehenbailehen emon biharko dau izena, Kutxabank-eko ES23 20955109009 115389087 kontuan 40 euro sartuta (15 urtetik beherakuek 15 euro pagau biharko ditte).

SolarPACES kongresuan dagoz IK4-Teknikerrekuak

K4-Teknikerrekuak Marokon, Casablancan dagoz martitzenaz geroztik, gaur arte martxan egongo dan SolarPACES kongresuan parte hartzen. Azittaingo poligonuan dagan zentro teknologikuek txosten-egitarauan hartuko dau parte eta, horrez gain, stand-a izango dau erakusketak egitteko eremuan. Casablancako kongresua kontzentraziño bidezko eguzki-energixaren sektorian ekitaldirik garrantzitsuena da mundu maillan. Energixaren Naziñoarteko Agentziak antolatzen dau eta 24. ediziño honetan 40 herrialdetako 500dik gora ikertzaillak eta ordezkari bilduko ditte. IK4-Teknikerrekek 2006. urti-az geroztik urtero hartu dau parte kongresuan eta aurtenguan hiru txosten aurkezteko asmuarekin



jua da: horretako bi CENER Energixa Barriztagarrixen Zentro Nazionalarekin alkarlanian egindakuek dira eta, horrekin batera, egin ditte hainbat ikerketetako emaitzak emongo ditte ezagutzera postereen sekziñuan.

Hautsetik suspertu zen hotela

Eibar hauts artean murgildu zen bapatean 1968ko urriaren 12an. Goizeko 10:30ak ziren, baina dena ilun zegoen. Arrate hotela, herriaren modernizazioaren ikurra izan behar zen eraikina, erori egin zen.

San Andres egunean zen inauguratzekoa, azaroaren 30ean, baina goiz hartan hauts artean desagertu zen. Inor ez zen zauritua izan eta hiru urte geroago, orduan bai, hotela inauguratu zen, baina egun hartako sustoak bizirik jarraitzen du 50 urte eta gero.

Jaieguna izan ohi da urriaren 12a, Pilarika eguna, eta hainbat ekintza zeuden martxan 1968ko goiz hartan Eibarren. Herriko gazteak, domeka eta jaiegunetan egiten zuten bezala, foballean jokatzen zebiltzan Txaltxa Zelaian. Jacinto Zuluaga Vazquezek zuzentzen zuen Musika Bandak, bestetik, 10:00etan kalejira egin zuen eta, amaitu zutenean, udaletxean zegoen musika akademian piezak entseatzen hasi ziren geroago Untzagako kioskoan eskaini behar zuten kontzertuaren aurretik.

Bapatean udaletxeko txirriak jo zuen. Eta luze jo gainera, zerbait larria gertatzen zeneren seinale. Ondo gogoratu du momentu hura Mateo Guilabert kazetariak, momentu hartan musika bandako ki-dea zenak. *"Zuzendariak municipalengana joateko esan zidan, zer gertatu zen ikusteko, eta plazara irten nintzenezan ez zen ezer ikusten"*.



Foto Plazaola 1968 - SJ0964

Hondakinak alboko eraikinaren 3. pisuraino iritsi ziren.

Hauts artean zegoen herriko erdigune osoa, baina Txaltxa Zelaian foballean zebiltzan gazteek, ordea, ez zioten jokatzeari utzi, nahiz eta hotelaren erortzeak sortutako zarata ikaragarria izan zen.

Inauguraziorako hilabete eta erdi falta zenez, eraikuntzaren egitura prest zegoen. Aranzazu izeneko hotel-katearena zen eraiki beharreko hotela, herriko lehen hotel handia, eta Eibarko hainbat industriari ere aurkitzen ziren promotoreen artean. Hotelak bederatzi pisu zituen ordu hartan, bost segundutan behera etorri ziren bederatzi solairu. Hondakinak alboko eraikinaren hirugarren pisura arte iristen ziren, baina horren azpian, zorionez, ez zuten inor harrapatu.

Zauriturik ez, kasualitatez

Bederatzi pisuko eraikin bat inolako abisurik gabe erori eta kalte pertsonalik ez egotea ez da erraza, baina horrela izan



Foto Plazaola 1968 - SJ0962

Inauguraziorako hilabete eta erdi falta zenean erori zen Arrate hotela.

zen urriko 12 hartan. Arrate hoteletik hurbil, gaur egun bezala, autobus geltokia zegoen orduan ere eta erorketa gertatu baino minutu batzuk lehenago ume talde bat zegoen bertan, Guilabertek oroitzen duenez. Irakasleekin irteera bat egiteko zeuden bertan geratuta, baina autobusa hartu zuten bederatzi pisuak erori minutu batzuk lehenago.

Eraikina zaintzeaz arduratzen zen gizona eta bere txakurra ere libratu ziren. Ardoari esker gainera. Izan ere, hamaretakoaren ordua zen langile honentzat eta jatekoa edariz laguntzeko Irimo tabernara (gaur egun Duran Duran dagoen tokian zegoena) joan zen ardo botila bat erostera.

Hasiera batean milaka lauzarekin egin behar zen hotelaren fatxada eta lan hori egiteko igeltsero talde bat etorri zen Madriletik. Sasoi hartan parrokoaren baimena behar zen domeka edo jaiegunetan lan egiteko eta baimen bila joan ziren langile hauek. Erlijio aldetik hain egun garrantzitsua izanda, parrokoak ez zuen lan egiteko baimenik eman eta erabaki horrek bizitza salbatu zien igeltseroei nahi gabe. Dotore jantzita, igeltseroek ondo ospatu zuten egun hartan lan egin behar ez izana. *"Inoiz gehiago ez dut lanik egingo jaiegunetan. Apaiz horrek bizitza salbatu digul"*, zioten barre eta oiherarte Alberto tabernan, Guilaberten berbetan.



Foto Plazaola 1971-72 - SJ1165

Arrate Hotelaren harrera-lekua inauguratu eta berehala.



Foto Plazaola 1971-72 - SJ1195

Erorketa gertatu eta hiru urtera inauguratu zuten hotela.

10 milioi pezetako kalteak

Ez zen kalte pertsonalik egon, baina materialak bai. Urteetako lana desegin zen eta ia zerotik hasi beharra zegoen. Orduko 10 milioi pezetako galerak egon zirela kalkulatu zuten (egungo 60.100 euro inguru) eta hainbat ikerketa egin



eta gero, erortzearen arrazoi nagusia erabilitako zementuaren kalitate eskasa izan zela ondorioztatu zuten.

Kontua zen herriaren ikurra izan behar zena obra-hondakin bihurtu zela, baina arduradunek ez zuten etsi. Hondakinak batu, gunea atondu eta beha-

rreko analisiak egin eta gero, hiru urte geroago, 1971ko urtarrilean, Arrate hotela inauguratu zen. Eibarrek bazuen, behingoz, herriaren modernizazioaren ikurra izan behar zen eraikina. Fenix hegaztiaren antzera suspertu zen Arrate hotela, hautsetik kasu honetan.

no+vello®

KE

BIHURTU ZAITEZ *eta zatoz zure burua zaintzera*

Egin ezazu ihes egunero errepikatu beharreko egoeretatik, eta aurki ezazu zeure burua zaintzeko une hori, no+vello etxean

30€ gune/saioko

- FOTODEPILAZIOA
- FOTOGAZTETZEA
- AURPEGIKO GARBIKETAK

%10eko deskontua izango du iragarki hau aurkezten duenak.
*Sollik bezero berriak edo gune berriak

AZPEITIA - Ildefonso Gurrutxaga, 8 - 943 04 44 22
EIBAR - Ego Gain, 20 - 943 53 88 05



RAMON BEITIA: Aginaga auzoko jaiak.

Hizkuntza ohiturak astintzeko 11 egun

Ohiko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko asmoarekin sortutako ariketa soziala da Euskaraldia. Gertu daukagu, urtebeteko prestaketa lana egin eta gero azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean gauzatuko delako Euskal Herriko ehunka herritan. Ahobizi, Belarriprest edo Bihotzgoxo, zabalik dago egitasmo honetan parte hartu ahal izateko izena emateko epea. Gainera, Eibarko Hamaikakoa prest daukagu, hamaikako gehiago eratzeko gogoz.

Parte hartzaile bakoitzak rol bat aukeratu du Euskaraldian hartzen duen konpromisoaren arabera. **Ahobizia** izatea erabakitzen baduzu, euskaraz egingo diezu ulertzen duten guztiei, nahiz eta eurek erdaraz erantzun. **Belarriprest** rola hartuz gero, euskaraz dakiten guztiei zuri euskaraz egiteko gonbitea egingo diezu, eta zuk euskaraz edo erdaraz erantzungo duzu. Eta **Bihotzgoxo** izanez gero (Eibarren erabiliko den rola da), nahiz eta euskara ez ulertu, pozik hartuko duzu Ahobizi edo Belarriprestek zuri lehen hitza euskaraz egitea eta, taldean zaudenean, ondo ikusiko duzu Ahobiziek euskaraz egitea. Kasu guztietan gutxienez 16 urte eduki behar dira parte hartu ahal izateko eta azaroan zehar bereizgarriak banatuko dira parte-hartzaile bakoitzak zein rol aukeratu duen jakiteko.

Izena emateko epea zabalik

Irailaren 20an zabaldu zen Euskaraldian izena emateko epea eta Eibarren Akebai plataformaren webgunearen bitartez egin daiteke (www.akebai.eus/euskaraldia). Akebaik sustatu eta aktibatuko du Euskaraldia Eibarren. Urtean zehar Hamaika Berbaldi egitasmoa martxan jarri eta orain dela pare bat aste bilera informatiboak eskaini bazituen ere, azaroaren 23a iritsi baino lehenago gehiago berotuko du Euskaraldiaren inguruko giroa. Horren adibide dira Miren Gisasola eta Malen Illarramendi, 11 egunetan Eibarren euskara hutsean nola bizi izan diren erakutsi diguten bi neska gazteak. Egunero bideo labur bat aurkeztu digu bikoteak (<http://akebai.eus/euskaraldia/11-bideo/>), Euskaraldian eman daitezkeen egoeren erakusle.

11 EGUN EUSKARAZ
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

EUSKARALDIA

AHOBIZI edo **BELARRIPREST?**

Euskaraldian parte hartu nahi dut. Baina zein rol aukeratuko dut? Belarriprest? Ahobizi?

1 Norbaitek euskaraz egiten dizunean, ulertzen al diozu?

BAI

EZ: Euskaraldia ez da zuk parte hartzeko egokia. Ulermena landu dezakezu eta hurrengoan parte hartu. Hala ere, aurtengo giroa sortzen eta errazten lagundu dezakezu.

2 Prest al zaude jendeak zuri euskaraz egiteko? Ondo hartuko al zenuke dakiten guztiek zuri euskaraz egitea?

BAI

EZ: Euskaraldia ez da zuk parte hartzeko egokia

3 Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean ulertzen duten guztiak euskaraz soilik egiteko prest al zaude? Ezagunekin zein ezzagunekin, edonon eta edonon, batzuetan solaskideak erdaraz erantzun arren?

BAI

EZ

AHOBIZI izango zara

BELARRIPREST izango zara

Ane Sarasua, Arrate Balentziaga, Eva Eguiguren, Felix Morquecho, Ghita Ourdi, Jokin Elortza, Juan Jose Flores, Mari Jose Iriondo, Mireia Alonso, Pello Osoro eta Zaloa Urainek osatzen dute Eibarko Hamaikakoa. Ekimenaren enbaxadore izango dira eta herrian hamaikako gehiago eratzeko aktibazio lana egingo dute. Zuen inguruan Euskaraldian parte hartzeko hamaika laguneko taldea badaukazue, hamaikakoa osatu eta Euskaraldiaren mezua zabaltzeko gonbitea egiten dute antolatzaileek.

'Hartu kontrola, aukeratu rola' da Euskaraldiko abestiaren izenburua. Musikaren lau ardatz ezberdinetan hazi diren ibilbide luzeko lau sortzailek osatu dute kantua, *Las Tea Party*, *La Basu*, Ines Osinaga eta Maddalen Arzallusek. Bertso, soinu tradizional, rap eta elektronika doinuak ditu abestiak, lau sortzaileek euskararekiko izan duten harreman ezberdinen erakusgarri. Euskaraldiak *Bandcamp* webgunean (euskaraldia.bandcamp.com) daukan orrialdean entzun daiteke abestia, euskararen ekosistema aldatu dezaketzen lehen doinuak.

Nahiz eta hasiera batean organo merke gisa saldu zitzaizen elizei, 1960 eta 1970eko hamarkadetan jazz, blues eta rock musikarako teklatu estandarra bilakatu zen Hammond organoa. Ekoizle handia zen mundu mailan, erreferentea, Jose Luis Elorza eta Jesus eta Jose Ibaceta anaiei bidea erakutsi zien eredia. Hainbat arlotan ezagutza handia zuen hirukoteak eta, planorik gabe, Hammond enpresako buruak aho zabalik utziko zituen musika tresna sortu zuten, Helmholtz organoa.

Demaseko zortea izan zen sasoi eta toki berean Jesus eta Jose Ibaceta eta Jose Luis Elorza bezalako jenioek bat egitea”, dio miresmenez Jesus Maria Agirrek. Mekanika, fisika, eraikuntza, diseinu, elektrizitate, elektronika eta soinuaren inguruko ezagutzak zituen Armeria Eskolan ibilitako hirukoteak, eta gizartearentzat zerbait erabilgarria eta praktikoa sortzeko gogoak hainbat asmakizun egitera bultzatu zituen.

Kalbetoi kaleko 20. zenbakiko ganbaran elkartzan ziren. “Ganbara hura Eibarko zentro teknologiko nagusia zen sasoi hartan”, dio Aguirrek. Hozkailu elektronikoa diseinatu zuten, “freskera eta hozkailu lehorren sasoi hartan imajinatu ere ez zitekeen zerbait”, baina hirukoteak musikarekin jo zuen goia.

Teklatu monofonikoa sortu zuten lehenik, baina organo polifonikoa zuen begiz jota hirukoteak. Hala ere, ez zuten organoa egiteko planorik eta horren inguruan lortu ahal zuten informazioa oso urria zen. ‘Radio Electronics’ aldizkaria lortu ahal izan zuten, baina azken finean aldizkaria ez zen organoa sortu ahal izateko gida. Gainera, ingelesez zegoen. “Nik ez nuen tutik ulerzen”, esan zion Jose Ibacetak Agirreri. Orduan, Ermuko elizatik hartutako Hammond organoari barrenak atera eta hori erabili zuten gida bezala. Horrekin eta aldizkarian jartzen zuten informarekin aurrera egin zuten.

Nork itzuli zuen gaztelarara ‘Radio Electronics’ aldizkarian jartzen zuena? “Jose Luisek”, dio Agirrek, “bera zen burua, adimena”. Eta nork sortu zituen piezak? “Ibazeta anaiek, jenio hutsak ziren”. Argi zeukaten organo on bat egiteko organo-ekoiz-



MAGIA

Errekatxu 16an

le onenari kopiatu behar zietela, hau da, Hammondi. Hala ere, eibartarrek ez zuten informazio handirik, ezta elementuen neurriaren erreferentziarik ere; eta euren eskura zituzten baliabideak ez ziren Chica-gon Hammond enpresa handiak zituen bezalakoak, ezta gutxiago ere.

Hegazkin baten antzera

Errekatxu kaleko 16. zenbakian eduki zuten lehen tailerra Ibaceta anaiek eta Elorzak. Eraikin mistoa zen, oso ohikoa sasoi hartan eibarren, eraikin berean industria eta etxebizitzak elkarrekin bizi ohi

**“Mirari teknologiko,
mekaniko eta akustikoa
da Helmholtz-a”**

zirelako. Euren abenturak aurrera egiten jarraitzen zuten, baina izen bat behar zuten eta Elorzak Helmholtz izena jartzea proposatu zuten, Hermann Von Helmholtz fisikari alemaniarraren omenez. Oinarrizko seinale senoidaleen sintesi gehigarrien bitartez tonu musikal konplexuen lorpene frogatu zuen Von Helmholtzek eta Elorzari izen egokia iruditu zitzaion enpresarentzat. “Gainera, Helmholtz ahoskatzerakoan Hammond antzera entzuten da”, Agirrek dioenez.

96 notako tonu-sorgailu bat diseinatu zuten, 8 oktabakoa. Danbor erako sorgailua zen, motor elektrikoa eta marruskadura-gurpila zuena. “Hegazkin baten zarata egiten du martxan jartzen denean”, Aguirreren esanetan. “Hori bai, musika doinuak irteten direnean zoragarria da”.



Teresita Lapeyra Helmholtz organo baten aurrean 1957an.

Organoen bilakaera

'Unda Maris' izeneko organoa izan zen Helmholtz enpresak sortu zuen lehena, 1958an. Kommutadore birakaria eta 62 notako teklatu bakarreko organoa zen. Gaur egun Iruñean aurkitu dezakegu horrelako modelo bat. Ondoren, hainbat hobekuntza egin eta gero, 'Stella Maris' modeloa sortu zuten. *"Hanekin soinu baxuak sortzeko aukera gehitu zioten, pedalierra, lehen oktaba jotzeko; bi teklatu zituen; eta bozgorailuak, anplifikadoreak eta beste hainbat gauza aldatu zituzten"*. Organoaren altzariak Elgoibarko Florentino Etxeberria ebanistak egin zituen eta teklatuak egurrezkoak ziren, Zarauzko piano fabrika bati erositakoak.

Egindakoa handia bazen ere, Helmholtz bidegurutzean zegoen. Juan Urteaga kontzertista famatuak 'Hammond CV' batekin kontzertua eskaini zuen Astelena frontoian eta han entzundakoarekin ondorio batera ailegatu zen hirukotea. Danbor-sorgailuekin ez zuten etorkizunik Europan indartsu sartzan hasitako organo amerikar berriekin alderatuz. Organo berri horien antzeko bat eraiki behar zuten.



Helmholtz organoa Armeriako Museoaan.



Juan Luis Agirrek atzoko kontzertuan hartu zuen parte Coliseoan.

Urteetako lanaren ondoren, 1961an, Helmholtz goratuko zuen organoak argia ikusi zuten, 'Helmholtz Church' modeloak. *"Mirari teknologiko, mekaniko eta akustikoa da, eta metal preziatuak ditu"*, dio Aguirrek. Paladioa, kobrezko hari berezia, brontze-aluminiozko aleazioa, beira... Goi-mailako organoa sortu zuten Ibacetatarrek eta Elorzak.

Amerikarrak harrিতuta

Sorkuntzarekin harro, Helmholtz enpresa eibartarrak bere organoaren berri eman zion Hammond konpainia handiari eta bisitak jaso zituzten. *"Abuztu batean gazte argentinar bat etorri zen. Helmholtzen fabrika inguruan musika entzun eta barrura sartu zen. Organoa jotzeko gonbitea egin zioten eta langileak zur eta lur geratu ziren. Ezin zuten sinestu argentinar haren eskuetan hain ondo entzuten zen organoa eurek sortutakoa zenik. Maisuki jotzen zuten"*. Charles Wilson zen, Hammond konpainiaren demostratzailea, eta ondoren beste batzuk etorriko ziren.

Stanley Sorensen Hammond konpainiako zuzendari orokorra izan zen Errekatxu bisitatu zuen hurrengoan. Laurens Hammond sortzailearen tokia hartu zuen Sorensenek. *"Txundituta zegoen, ez zuen ulertzen Errekatxuko eraikin txiki hartan horrelako organo bat egin ahal izana"*. Hammondek 8.000 langile inguru zituen Chicagon eta hiru eibartarrek Hammond organoaren erreplika egitea lortu zuten. Sortzaile eibartarrak zoriondu eta Chicagora bueltatu zuen Sorensen, baina hilabete gutxira Ham-

monden beste ordezkari bat etorri zen, Herbert Meynema zuzendari teknikoa. Eskuak organo azpitik sartu eta barrutik ukitzen zuten honek. *"Nahi beste ukitu ezazu, zure organoa bezalakoa da"*, esan zion Jose Ibacetak. *"Hammond fabriketatik kanpo gure organoek bezalako bat ikusten dudan lehen aldia da"*, erantzun zuen Meynema, *"non daude planoak?"*. Orduan, burua seinalatuz, zera erantzun zion Ibacetak. *"Hemen"*. Oinarri moduan hartutako Hammond organoaren 13.500 piezak hartu, kopiatu, eta organoa sortu zuen Helmholtz enpresak, planorik erabili barik. Meynema zoriondu egin zituen eta taloitegia atera zuen organo erosteko. Gaur egun, Chicagon aurkitu dezakegu organo hori.

Helmholtzaren pozoia

60 urte pasa dira Ibaceta anaiak eta Elorzak abentura honi ekin ziotenetik, baina Helmholtz organoek bizirik jarraitzen dute. 50 organo sortu zituzten guztira eta gaur egun kontzertuak eskaintzen dituzte horietako batzuek. Chicagon dagoen horrez gain, 19 daude Euskal Herria eta Espainian zehar sakabanatuta. Ermuko San Lorenzo ko elizan 'Stella Maris' organo bat dago, Eibarko Armagintza Museoa 'Helmholtz Church' modeloa aurkitu dezakegu eta musikari asko liluratuta geratzen dira organo hauen soinuarekin. *"Julian Maeso pozez zoritzen jarri zen Eibarrera kontzertua ematera etorri zenean eta Helmholtza deskubritu zuenean"*, dio Aguirrek. Zerbait berezia du Helmholtzak. Aguirrerentzat pozoia da. *"Jose Luis Elorza eta Jose Ibacetak Helmholtzaren pozoia sartu zidaten eta euren lekukoa hartu dut"*. Pozoi horri esker Helmholtzaren soinu magikoak bizirik jarraitzen du.

Eibarko Koro Gazteko Beñat, Iker, Oihane eta Garazi:

“Jendea animatu nahi dugu hilaren 19an gure musikala Ermuko Antzokian ikustera”

Eibarko Koro Gazteko kideek gogoz hasi dute ikasturte berria, eta datorren urriaren 19an “Forjarien kanta” musikala eskainiko dute Ermuko Antzokian, 22:15ean. Zuzeneko musika, koreografiak, antzezpen-lana eta mundu mailako musikalik ospetsuenen kantu ezagunak biltzen dira lan horretan. Eibarren, Coliseoan ikusteko aukera izan genuen, eta, lortutako arrakasta ikusita, Ermuan ere aurkeztea erabaki dute. Taldeko Beñat Laskurain, Iker Machin, Garazi Aizpurua eta Oihane Zabalarekin elkartu gara.

– *“Forjarien Kanta” 2016ko amaieran estreinatu zenuten Eibarren eta orain Ermuan aurkeztuko duzue. Badago beritasunik?*

Gure taldean Ermuko jendea dago (Oihane eta Garazi) eta, horregatik, musikala Ermura eramatea ideia ona izango zela pentsatu genuen. Musikalean 80. hamarkadako tailer batean gertatzen dena kontatzen da. Enpresa ixteko arriskuan dago eta, langabeziaren mehatxuaren aurrean, langileak irtenbide bat topatzen ahaleginduko dira. Edukian moldaketa batzuk egin behar izan ditugu, Ermuko historia eta errealitatera egokitzeko. Taularatuko

garen guztiak ere ez gara berdinak, hor ere aldaketa batzuk egon dira, batzuk joan eta beste batzuk etorri egin dira.

– *Musikala genero konplexua da, ondo abesteaz gain beste hainbat gauza egin behar direlako...*

Bai, ez da gauza bera geldirik abestea edo denbora guztian dantzan egiten eta alde batetik bestera mugitzen abestea. Gainera, interpretazio-lanak pisu handia hartzen du, eta askotan hauxe izaten da zailena. Batzuei sentimenduak adieraztea asko kostatzen zaigu; eta beste batzuei, aldiz, koreografiak eta posizioak menperatzea, Musikalak lan handia eskatzen du



eta ordu mordoan sartu behar izaten dira, dena ondo lotuta izateko. Esperientzia guztiz berria da guretzat eta oso aberasgarria. Hasieran, estreinatu aurretik, urtebete eman genuen prestatzen. Oraingotan, berrizteaz gain, detaile txikiak ere landu ditugu. Beraz, Eibarko eta Ermuko jendea animatu nahi dugu ikustera etortzeko. Merezi duela uste dugu.

– *Zeinen laguntza izan duzue?*

Gidoia Juanma Canorena da, eta interpretazio alorrean Juanma eta Maite Lorenzoren laguntza izan dugu. Elena Martin da gure zuzendaria eta zuzeneko musika Musikeneke eta Cielito Musika Bandako zenbait kideren esku dago.

– *Nola animatuko zenukete jendea urriaren 19an Ermuko antzokira joatera?*

Ez da ohikoa musikal batean jende hain gaztea ikustea. Aipatutako musikariek gain, 20 abeslari izango gara eszenatokian, 15-21 urte bitartekoak. Ermuan ez da inoiz horrelakorik ikusi. Beraz, nortzuk garen eta zer egiten dugun ikusteko aukera aparta izango duzue ermuarrek eta eibartarrek. Oso dibertigarria da, umorea ez da faltako eta oso ezagunak eta politak diren abestiak egiten ditugu. Sarrerak 8 euro balio du eta Lobianon edo Kutxabank-en bitartez eskura daiteke. Animatu!!!



Beñat eta Iker eibartarrek eta Oihane eta Garazi ermuarrek ilusio handiarekin kontatu dizkigute musikalaren gorabeherak.

Zabalik dago **2018ko Beldur Barik Lehiaketan** parte hartzeko epea

Desberdintasun egoeren aurrean neska-mutilek nola erantzuten duten eta indarkeria matxistaren adierazpenei nola egiten dioten aurreikus-entzunezkoen bidez erakustea bilatzen duen Beldur Barik lehiaketaren 9. edizioa martxan dago. 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendutako lehiaketara aurkeztu diren proiektuek Beldur Barik jarrera islatu beharko dute, *“hau da, emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gainditzeko, eta harreman askeak, errespetuzkoak, parekideak, anitzak eta ez-sexistak eraikitze ko konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi beharko dute. Kalitate teknikoaren edo artistikoaren gaintetik, mezuaren kalitatea baloratuko da: nesken ahalduzko oinarritutako gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna, eta mutilek matxismoaren aurka hartutako konpromiso pertsonalak eta kolektiboak adierazten dituenak”*. Izan ere, Beldur Barik EAEko instituzioek elkarlanean bultzatuta indarkeria sexista prebenitzeko gazteei zuzendu-

tako programa da eta, horren bitartez, gazteekin batera hausnarketa eta eztabaida proiektuak sustatzea nahi dute, horrela gizartearen eraldaketan laguntzeko.

Aurkeztutako lanetan edozein adierazpen artistiko onartuko dute, beti ere ikus-entzunezko euskarrian aurkeztu bada: flashmob, errezitatutako poemak edota kameraren aurrean irakurritako testuak, bideoak, argazkiak, argazki-muntaketa, fonobelak, lipdubak, dantzak, laburmetraiak, animaziozko proiektuak, proiektu zein artelanen aurkezpenak, performanceak, hiri esku-hartzeak...

Parte-hartzen duten proiektu guztiak, beraz, ikus-entzunezko formatuan aurkeztu beharko dira, Youtube edo Vimeo plataformetarako estekarekin eta gehienez 5 minutuko iraupena izan beharko dute, kredituak barne.

Eibarko onenentzako sariak

Azaroaren 9ra arte jasoko dituzte 2018ko Beldur Barik



Lehiaketarako bideoak eta irazleentzat hainbat sari banatuko dituzte: 1. kategoriako (12-17 urte) saria 500 eurokoa da eta aipamen berezia, berriz, 300 eurokoa; 2. kategorian (18-26 urte) 500 euroko saria eta 300 euroko aipamen berezia; ikus-entzunezko ekoizpen onenari saria (300 euro); eta parte hartzeari saria (300 euro). Sari orokorrez gain, Eiba-

rren herri mailako sariak ere egongo dira: kategoria bakoitzeko lan onenarentzat Eibarko dendetan gastatzeko 500 euroko erosketa-txartela banatuko dute.

Lehiaketari buruzko informazio guztia www.beldurbarik.eus helbidean aurkituko duzue eta, bestela, argibide gehiago eskatzekofo@beldurbarik.eus helbidera idatzi daitezke.

Zure enpresa erakusteko leku aparta

GIDA

KOMERTZIALA 2019

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76
www.etakitto.eus



*lorea arakistain*

“Herritar ez-fidagarriak, puntu gutxiago dituztenak, zigortuko dituzte haien eskubideak mugatuz”

Distopia

Black Mirror-en lokalizazio bat irudiko luke, egia ez balitz. Aurpegiak ezagutu, gorputzak eskaneatu eta kokapena jarraitzeko 200.000.000 kamerek herritarrak zelatatuko dituzte. Sistemak herritarren mugimendu guztiak erregistratuko ditu: kontu korronteen egoera, erosketak, familia eta, bereziki, iritziak.

George Orwellen eleberri bat irudiko luke, egia ez balitz. Anaia Handiak informazio gutzia prozesatu eta herritar ba-

koitzaren puntuazio-sistema eguneratuko du denbora-errealean. Kirola eginez, umez arduratuz eta sistema defendatuz puntuak lortuko dituzte herritar erdugarriek. Zordunek, bizikleta gaizki aparkatzen dutenek, garagardoa edan eta agintariak kritikatzeko dituztenek, ostera, puntuak galduko dituzte.

Distopia bat irudiko luke, egia ez balitz. Herritar ez-fidagarriak, puntu gutxiago dituztenak, zigortuko dituzte haien es-

kubideak mugatuz. Hauek, ezingo dute hegazkinik edo abiadura handiko trenik hartu, tren geldoa baizik. 800eko puntuaziora gerturatzen direnak sarituko dituzte hoteletako logelarik onenak ez ezik lanposturik onenak emanez.

Horrela sortzen dira klaseak eta hauen bitartez mantentzen da sistema kontrolpean. Kreditu Soziala da eta gertatzen ari da. Segurtasunaren izenean, Txinan.

*felix morquecho*

“Seguru horien protagonistak nahiago zutela zirriborroak paperean egitea mila argazkietan azaltzea baino”

Tirania moderna


Kaseteak, argazkiak egiteko karreteak edo pezetak. Zenbat gauza ote daude gaur egungo umeak ezagutzen ez dituztenak eta euren aurrekoentzat arruntak izan zirenak! Garaiak etengabe aldatzen dira eta ez naiz ni izango atzera jo nahi duena.

Baina aparatuak bakarrik ez dira aldatzen, batzutan haiek eraginda gure ohiturak ere bai. Umea nintzenez, karrera zegoela eta, nire lagun Asier eta biok Toribio Etxebarria kalera joan ginen koaderno bana besapean genuela. Gu ikustean, Eibarko Txirrindulari Elkartearen kide batek koadernoak hartu eta orduko okindegiaren ondoan zegoen ziklistari eman zizkion. “*Mutiko, bota sinadura ume hauei!*”. Ez genekien nor zen tipo hura, baina lehen sinadura lortuta genuen jada (hilabeteetara Thierry

Claveyrolat zela jakin genuen). Tipo ezaguna (edo erdi ezaguna) izateak hori zekarren, sinadurak han eta hemen egin behar.

Orain dela gutxi Donostiako Zinemaldia bukatu da eta han badakite izarrak hurbiletik ikustea zer den. Asko dira antzezleek zain orduak eman dituztenak, baina hara, sinadurak argazkiari utzi dio lekua. Seguru horien protagonistak nahiago izango zutela zirriborroak paperean egitea mila argazkietan azaltzea baino. Profesionalak dira, eta lehen sinadura txukun egiteko ematen zuten denbora orain ispilu aurrean eman beharko dute argazki guztietan zoragarri azaltzeko. Horra hor argazkien demokratizazioa, nahiz eta batzuentzat tirania bihurtu.

25 urte



25. SAGARDO EGUNA EIBARREN: goizez (12



**BI TIKET
mota**



25. edizioa

2.340 sagardo botila

200 kg. txorizo

15 kg. gazta

70 lagun lanean

1993an ospatu zen lehen Sagardo Eguna, baina 25 urte betetzen ditu aurretan, 2.008an etena egin zelako. Hasiara batean herriari bere babesa eskertzeko sortu zen ekintza hau ohitura bilakatu da denborarekin. Kokaleku, iraupen eta izaera desberdina izan du Sagardo Eguna 25 urte hauetan.

Hasiara batean Domu Santu goizean egiten zen Untzagan, 25-30 lagunek jarduten zuten lanean eta dozena erdi sagardotegiren sagardoa dastatzeko aukera izaten zen orduan. Jatekoa ere izaten zen, baina txorizoa beharrean, txistorra.

Bizpahiru urte geroago urrira aurreratzea erabaki zuen ...eta kitto!-k eta arratsaldera pasatu zen. Gaur

egun banatzen den sagardo kopuru erdia banatzen zen orduan, 1.100 litro inguru eta 35-40 lagun inguruk jarduten zuten lanean.

Urte batzuetan Toribio Etxeberrian egin zen, udaletxea berritzeko lanak eta Txaltxa Zelaiko lanak iraun zuten bitartean.

2008an, ez zen Sagardo Egunik ospatu, jaialdia bera berplanteatu zen eta berrikuntzak eta hobekuntza lantzea erabaki zuen Elkarteak.

2009az geroztik egun osoko ekitaldia da eta horrek sagardotegi eta sagardo litro kopurua zein egunean bertan lanerako behar zen jende kopurua bikoiztu beharra ekarri zuen. Egunean bertan 70 lagunetik gora ibiltzen dira tiketak saltzen, basoak banatzen,

sukaldean, sagardoa banatzen, umeendako jolasetan, kirikoketa eta tolarean muztioa ateratzen eta zamalanak egiten.


Horretaz gain, urte osoan lanean jarduten duen Sagardo Batzordea ere badago, hobekuntzak, berrikuntzak planteatu eta bideratzen dituena.

Orain dela 26 urte bezala, urten ere ESKERRIK ASKO esan nahi dizuegu ...eta kitto! Euskara Elkartetik herritar gutztoi, urte osoan zehar erakusten diguzuen babes eta laguntasunarengatik eta bereziki Sagardo Batzordea osatzen duzuenoi eta egun hori aurrera eramateko lanean irrifarre eta guzti jarduten duzuenoi.

13 sagardotegi

Alorrenea (Astigarraga) **Altzueta** (Hernani) **Barkaiztegi** (Donostia) **Begiristain** (Ikaztegieta) **Egi-Luze** (Errenteria) **Gartziategi** (Astigarraga) **Gaztañaga** (Andoain) **Gurutzeta** (Astigarraga) **Isastegi** (Tolosa) **Olaizola** (Hernani) **Sarasola** (Asteasu) **Zapiain** (Astigarraga) **Zelaia** (Hernani)

00-14:30) eta arratsaldez (19:00) Untzagan



SAGAR-TARTA

LEHIAKETA

25 urte betetzen ditu aurten Sagardo Egunak, eta ohikoez gain, aurten badu berritasunik. Horietako bat izango da sagar-tarta lehiaketa. Zapatuan bertan egingo da eguerdi partean.

- 16 urtetik gorako edozeinek hartu ahal izango du parte.
- Tartak etxetik ekarri beharko dira prestatuta eta Untzagan aurkeztuko dira (parte-hartzaile bakoitzeko bat) 12:30etik 13:00etara bitartean (tolarearen ondoan). Gutxienez 4 raziokoa izango da.
- Epaimahaiak zaporea, sormena eta aurkezpena hartuko ditu aintzat, eta sariak egunean bertan banatuko dira: 150€ (1. saria), 100€ (2. saria) eta 50€ (3.saria).
- Aurkeztutako sagar-tartak ...eta kitto! Euskara Elkartearentzat izango dira. Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzen direla eta epaimahaiaren erabakia onartzen dela esan nahi du.



I. Sagar-tarta lehiaketa antolatu da Eibarko Sagardo Egunaren 25. urtemuga ospatzeko.

Bihar eguerdian zeuen sagar-tarten zain egongo gara Untzagan!!! Animatu!!!

25. SAGARDO EGUNA EIBARREN

eta gauean...

MUGI PANDEROA eta DEUS EZ

Eta aurtengo beste berritasuna gauean etorriko da. 21:00etatik aurrera jaiak Untzagako beste aldean jarraituko du **Deus Ez** eta **Mugi Panderoa** talde eibartarren kontzertuekin. Bitartean, txosna irekiko da Untzagako alde horretan eta, han ere, ez da jatekoa faltako.



#sagardoetakitto Instagram lehiaketa

Lehiaketaren oinarriak:

- 1- **@gaztekitto** Instagram kontuaren jarraitzaile izan.
- 2- Eibarko Sagardo egunean ateratako argazkiak igo Instagramera, **#sagardoetakitto** traola erabiliz.
- 3- **@gaztekitto** etiketatu.

Igo zure argazkia urriaren 8a baino lehen!

Argazki originalenaren egileak 13 sagardotegietako botila bana jasoko du.

Animatu eta parte hartu! Zeren zain zaude?



Andres de Egiguren orkestrak Madinaren obra kutuna estreinatuko du Coliseoan

Pedro Palacin eibartarraren eskutik 2008an sortu zen Andres de Egiguren orkestrak kontzertu berezia emango du urriaren 26an, 20:00etan Coliseo antzokian. Izan ere, orkestrak mundu mailako estreinaldia egingo du Eibarren eskainiko duen emanaldian: kontzertura joatera animatzen direnek Francisco Madina (Aita Madina) konpositore oñatiar handiaren "Gitarra eta soka orkestrarako erlijio-musikako kontzertua" izenburuko obra lehenengoz entzuteko pribilegioa izango dute. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Kontzertua zuzenduko duen Palacinek aurreratu digunez, "Eibarren emango dugun kontzertu hau estreinaldi-serie baten lehenengoa izango da". Izan ere, Palacinek urteak daramatza Madinaren obraren inguruko ikerketa-lan sakona egiten eta Oñatiko artxibategian gordeta dauden bere obrak berreskuratzeke lanean. Dioenez, "Madinak sortutako musika oso-oso ugaria da, baina bere obra batzuk estreinatu barik geratu ziren, horretarako denbora izan aurretik hil egin zelako. Eta beste lan batzuk, berriz, erdi galduta daude. Bere obra guztia Oñatiko artxiboan daukate eta hori ahalik eta ondoen zaintzen eta gordetzen ahalegindu dira. Ni, berriz, Madinaren obra rebisatzen eta birkonposatzen nabil. Izan ere, musikari oso handia izan arren, uste dut Madina ez dagoela benetan dagokion tokian, hau da, ez zaiola aitortu benetan duen garrantzia".

Madinaren obraren inguruan egiten diharduen lan mardularen barruan, hainbat pieza moldatzen ari da, besteak beste orkestrarako musikazioa egiteko, eta horietako bat da, hain zuzen, hemendik egun batzuetara gurean estreinekoz entzungo dena: "Madinak berak esaten zenez, beste gauza guztien gai-

netik abadea zen bera, erlijioak berebiziko garrantzia zuen bere bizitzan. Coliseoan eskainiko dugun obra Vaticanoan estreinatu nahi zuen berak, abade zela 50 urte betetzen zirenean, baina obra hau eskutan zuela hil egin zenez estreinatu barik geratu zen. Pentsatzen dut Madinarentzat obra berezia eta oso garrantzitsua izango zela, horregatik aukeratu dugu estreinatzen lehena izateko".

Kontzertuan 15 hari-instrumentuk jardungo dute lehen zatian eta bigarreanean, berriz, haizezko beste lau gehituko zaizkio. Gainera, maila handiko kolaboratzaileak lagunduko die gitarrarekin: Eduardo Baranzano nazioarteko kontzertistak jardungo du bakarlari gisa. Uruguayen jaiotako musikaria Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko katedratikoa da eta, gainera, Madinaren musikaren miresle eta defendatzaile handia ere bada.

Argentinara bidaiari

Andres Egiguren orkestra Coliseoan zuzendu eta jarraian, bi egunetara Palacin Argentinara bidaiari joango da, Buenos Airesen beste kontzertu bat, Madinak harpa eta orkestrarentzat idatzitakoa ematera: "Berez pianoarekin jotzeko idatzi zuen, baina nik orkestrarako moldatu dut. Ma-



Pedro Palacinek urteak eman ditu Oñatiko artxibategian Madinaren obra ikertzen.
Anabel Mendez

Urriaren 26an emango duten kontzertuan Eduardo Baranzano nazioarteko kontzertistak jardungo du gitarrarekin bakarlari

dina Argentinan bizi izaten egon zen eta orain bere obrarekin han izango naiz. Solista bertako neska bat izango da.

Horrez gain, Madinaren obrari buruzko hitzaldi batzuk ere emango ditu Buenos Airesen, Euskal Etxean eta La Platan, hango unibertsitatean. Eta Madinak bere obra asko Argentinako antzokirik garrantzitsuenetan estreinatu zituenez, han nagoela aprobeztatuta, Madinaren lanarekin lotutako material berria lortzen ahaleginduko naiz". Hiru aste emango ditu han eta, bere berbetan, "pixka bat urduri baina ilusio handiarekin" ekingo dio bidaiari.

Errugbiko emakumezkoak indartsu euren lehen finalean

Luciak, Amaiurrek eta Asmak bina entsegurekin eta Dohak eta Aleuk banarekin osatu zituzten aurreko asteburuan Durangon jokaturako partiduan eibartarrek lortutako zortzi entseguak. Bizkaitarrek taldea indartu dute eta ondo egin zieten aurre Cristina Guntinek prestatzen dituen neskei; hala ere, azken hauen nagusitasuna gero eta ageriago ikusi zen partidua aurrera egiten zuten neurrian. Lehen zatia 5-23koa erakusten zuten markagailuan, amaieran

14-41 bihurtuko zena. Euskal Liga itzuli bakarrera jokatu da fase honetan eta horrek garrantzi berezia ematen die partidu bakoitzari, edozein porrotek denboraldirako finkaturako helburuak bide erdian geratzea ekarri ditzakeelako.

Gizonezkoen talde biek galdu egin zituzten jokaturako azken partidua: Ohorezko B mailan jokatu duen lehen taldeak 27-34 amore eman behar izan zen Santanderreko Bathco talde indartsuaren aurrean Unben jokaturako norgehiagokan



Senior mailako gizonezkoen bigarren taldeak galdu egin zuen Getxon.

eta senior mailako bigarren taldeak 19-3 galdu zuen Uribeal-

dea B-rekin Euskadiko 2. Erregionaleko partiduan.

Eibar Igerixan-ek igeriketa sinkronizatua ere eskainiko du

Bihar ekingo diete modalitate berri horretako entrenamendu-saioei Eibarko Igerixan taldekoek. Orbeako kiroldegian izango dira saio horiek, eguerdiko 12:30ean, eta igeriketa artistikoa edo sinkroniza-

tua praktikatzeko igela maila izan beharko da gutxienez. Izena emateko, interesatuek eibarigerixan@gmail.com helbidera jo dezakete edo, bestela, 688 610 620 telefono zenbakira deitu.



Saritutako Eibar Igerixan-eko hiru ordezkariak.

Bestalde, aurreko zapatuan egin zen Gipuzkoako Igeriketa Galan azken denboraldian ondo merezitako errekonozimen-

dua jaso zuten Maite Barrutabeña, Jon Osa eta Iker Calvo Eibar Igerixan taldeko hiru igelari sarituek.

Somosek garesti saldu zuen porrota Anaitasunaren aurrean

Fernando Fernandezek mutilek euren eman zuten denboraldi amaieran sailkapeneko gorenean egoteko hautagai nagusiaren aurkako partiduan. Atsedendian, gainera, 13-10 irabazten zuten eibartarrek eta, bigarren zatian markagailua berdinduago joan bazen ere, azken hamar minutuek erabakigarriak izan ziren nafarrek lau goleko tarte zabalduta eta eusteko. 24-28 horretarako ondo borrokatu zuen talde guztiak; hala ere, Mikel eta Aitor Oregi, Axier Gisasola eta Xabier Azkonizaga nabar-



Jubenil mailako Tenikerrek partidurik ez du galdu oraindik.

mendu ziren, azken hau bigarren zatian batez ere.

Harrobiko taldeek orain arteko ibilbide bikainari eusten diote. Jubenil mailako taldeek partidurik galdu gabe jarraitzen dute, oraingoan doi-doi irabazi arren: mutilen taldeak azken esprintean hartu zion aurre Urrietari (27-28) eta neskenak Astigarragako Mundarri 17-20 irabazi zion. Kadeteetan Euskal Ligara igotzeko helburuarekin jarraitzen dute mutilen Teknikerrek (47-24 Usurbili) eta nesken Muebles Zalduek (17-28 Pulpori Zumaian).

Deporreko mendizaleek Mariri egin zioten bisita

23 laguneko taldea osatu zuten aurreko zapatuan Arrazolatik irten eta Mariren kobarrantz abiatzeko, Anboto Sakonako kilometro bertikaletik doan ibilbidea aprobetxatuta. Taldekideen segurtasuna bermatzeko, Gerriko kobatik Mariren kobara doan pasabidea sokaz ekipatu zuten eta, "modu horretan guztiok pasatu ginen, banan-banan, alde batetik bestera". Talde-argazkia egin ondoren, bueltan Anboto puntara jo zuten, bertako gaineratik Zabalundira jaisteko. Eguraldi paregabea lagun zutela, ibilaldiaren azken zatia "patxadaz" hartu zuten eta, "egunza gozatuz" arratsaldeko 17:00al aldera iritsi ziren Arrazolara bueltan.



Julio Gallego, Manu Agirre eta Javier Garcia Kalamuan.

Javier Garcia hautatzailea Kalamuakoekin izan zen jiu-jitsu Europako txapelketa prestatzen

Aurreko asteburuan junior mailako Europako txapelketarako prestaketa-lanetan jardun zuten klubeko hainbat kirolarik, bertan Kalamuako ordezkari izango den Iker Martinezek laguntzen. Hilaren 25etik 29ra Bolonian jokatu den txapelketa horretarako "sparring" ezinhobea ekarri zuten gainera, Eibarren izan baitzen Javier Garcia jiu-jitsuko Espainiako hautatzailea. Garcia hamabi aldiz izan da Espainiako txapeldun, sei aldiz Europakoa eta hirutan mundukoa, azpitxapeldun izan den beste guztiak ahaztu gabe.

Afizionatuen mailako helduen pilota partidua gaur Astelenan

Pilotari federatuen Gipuzkoako eskuz binakako txapelketaren partidua izango da gaur arratsaldean (19:00etan) Astelenan jokatu den jaialdiko neurketa nagusia. Hor Klub Deportiboko Narbaizak eta Zubizarretak osatutako bikoteak Oñatiko Aloña Mendikoei egingo die aurre. Aurretik eta ondoren pilota eskolako ordezkarien partiduak jokatu dira: hasteko, Azkarate eta Olaetxea vs Gil eta Meabebasterretxea; eta amaitzeko, Barrietabeña eta Del Rey vs Usobiaga eta Basaras. Sarrera doan izango da. Kadete mailako Camina-Azkargorta bikoteak irabazten jarraitzen du, aurreko asteburuan egin zuen moduan (22-5) eta oraingoan Aretxabaletan izango dute hitzordua.



Pilota Eskolakoen arteko beste bi partidu ere jokatu dira.

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



Azitaingo irudi birtuala. Proiektua 5 milioi garestiagoa ei da.



Areitioko irudi birtuala. Argi gehiago du eta prestatuago ei dago.

KONTSEILUAK MALLABIAKOAREN ALDEKO IRITZIA AGERTU DU

Kirol Hiria egiteko aukera bi aurkeztu dizkie Eibarrek akziodunei

5,44 milioi euro merkeagoa, 15.000 metro karratu handiagoa, bi hilabete lehenago amaitzeko moduan eta, has-teko, zelai bat gehiagorekin (geroago handiagotzeko baita aukera gehiagorekin ere): abantaila nahiko ditu Areitioko Kirol Hiria Azitainaren parean jarrita. Aurkeztutakoaren arabera, Azitaingo proiektuak gauza bakarra du bere alde: Eibarren dagoela. Argiago esateko, txosten tekniko independente batek "erokeriatzat" jo du Kirol Hiria Azitainaren egitea, "lan gehiago eskatzen duen proiektua izateaz gain, eremua ilunagoa delako eta espazio gutxiago eskaintzen duelako". Azken bi aukera hauetara hel-tzeko bidean, ia beste hamar bat geratu dira bidean (Elgeta, Bergara, Arrasate, Iurreta eta Itziarren) eta, horiez gain, Eibarrek Unbe erosteko propo-

samena ere egin zion Udalari, bertan behar zituen lau zelaiak egin eta gaur egun Unben dauden antzerako instalazioak Azitainaren egiteko asmoarekin batera. Udalak, baina, ezetz esan zion erabilera publikora zuzendutako instalazio batekin ezin zelako merkatal arauen arabera jokatu ahal". Atxabalpe erosteko ahalegina ere egin zen, baina ezinezkoa izan zen.

Areitioko obra zibilak 12,3 milioi euroko kostoa du eta ter-renoak erostearena 3,7 milioi-koa; Azitaingo obra 14,94 milioira igoko zen eta terrenoak erostea 6,5 milioira. Areition 81.310 metro karratuko super-fiziea izango lukete, eta Azitain-en 66.300. Areition belar natu-raleko zelai bi egin ditzakete lehen taldearendako eta belar artifizialeko beste bi harrobia-rentzat, aurrerago besterik ere egiteko aukerarekin, Azitainen

bakarrak hiru egiteko aukera dagoenean, eurak handiagotzeko aukera barik. Areition lehen taldearen instalazioak hartuko zituen eraikina eta parking-a eginda daude, eta beste bat eraiki beharko zen harrobiarentzat, lokalak eta grada barne izango zituena; Azitainen basozatia ebaki beharko zen eta lurra berdindu aipatu-tako eraikin guzti horiek egiteko. Azkenik, Areitioko Kirol Hiria 18 hilabetetan amaituko lukete eta Azitaingoak 20 beharko lituzke. Eta Untzagatik ir-tenda, batera zein bestera 10 minututan heldu daiteke (auto-an beti ere).

Bigarren bilera 17an

Astehenean egin zuten gaiaren inguruko lehenengo bilera informatiboa eta, bertan jende gutxi izan arren, egon zen eztabaidarako tarterik: Mi-

guel de los Toyos alkateak berak "akziodun funtzioan" Eibar herriaren taldea dela eta ezin dela enpresa huts moduan ulertu esan zuen; Amaia Gorostiza presidenteak, baina, alkate moduan hartu zuen "ea Udalak ordainduko zuen alde" erantzun zionean. Eibarren patrimonioa herritik kanpo geratzearen arriskua agertzeaz aparte, izan zen bi proiektuak zelan saldu diren kritikatu zue-nik ere: "Bata lasterketarako zaldia dirudi eta bestea asto zahar bat". Bigarren bilera hilaren 17an egingo dute Ipuruako Formazio Geletan, urteko Bartzar Orokorra baino astebete lehenago. Hilaren 24rako Bartzarrean 2017-18 denboraldirako kontuak aurkeztuko dituzte, eta ekitaldi berean 18-19 denboraldirako aurrekontua aurkeztuko dute, taldearen historiako handiena (49 milioi euro).

Jugger kirol modalitateak bidea egin nahi du Eibarren



Gure herriko kirol-zaletasunari jarraituz, azken aldian jugger kirol modalitatea praktikatzen ikusteko aukera izan dugu Untzaga eta Txaltxa-Zelaietan. Aurreko domekan alkate bera ere izan zen jokalarien entrenamendu-saioan eta modalitatearen zabalkunderako prestutasuna ere adierazi zien, "bai erakusketak edo torneoak Eibarren antolatzerakoan, eta baita ogitarte edo sariak jartzeko orduan ere". Jugger-a taldeka jokatzen den kirola da, berria oso, 1990-95 urteen artean Alemanian sortutakoa eta errugbia eta esgrima konbinatzen dituena. Estrategiak eta trebetasunak indarrak baino pisu gehiago dute joko horretan.

Gimnasia erritmikako Euskadiko txapelketa jokatu da bihar Ipuruan

Ipurua klubeko senior, junior eta oinarrizko kadete taldeek hartuko dute parte, Nahia Gonzalezekin batera (hau bakarka), bihar Ipuruako instalazioetan jokoan izango diren Euskadiko txapelketetan. Goizeko 10:30ean hasi eta 15:00ak bueltan amaituko den hitzordua, gainera, erabakigarria izango da azaroan Murztian jokatu beharreko Koparako balioak izango delako senior eta junior taldeentzat eta baita bakarkakoan lehiatuko duen Gonzalezentzat. Txapelketa horretarako ondo prestatuta daudela erakutsi zuten aurreko asteburuan Donostian



Donostian irabazi eta gero, Ipuruako seniorrak Eibarren izango dira bihar.

parte hartu zuten Ipuruako taldeek: senior eta junior taldeentzat denboraldiko lehen tor-

neoa izan zen Izar Lekukoa, junior eta kadete oinarrizkoen taldeentzat bigarrena zen bi-

tartean. Nahia Arguiz, Jennifer Hernandez, Alaitz Aranbarri, Arrate Baroja eta Lorea Armentarizek osatutako boskotea senior mailako onena izan zen parte hartu zuten zortziren artean, eta atsedetik gabeko bi minutu eta erdiko iraupena duen ariketarekin bataila bateko gorabeherak erakusten dituen muntaia dinamikoa egin zuten, bost pare maza erabiliz horretarako. Junior mailako taldeak bost zinta erabili zituen bere ariketan eta kadete oinarrizkoak bost aro berean; kasu bietan podiumaren hirugarren postura iritsi ziren eta indartsu daudela erakutsi zuten.

Urbateko waterpolo taldeak Euskal Herriko SuperKopan izan dira

Asteburuan Leioako Askartza Claret igerilekuan jokatuak Euskal Herriko SuperKopan Urbateko gizonezkoen taldea azpitxapeladun izan zen eta emakumezkoena hirugarren. Gizonezkoen taldeak Waterpolo Navarrari irabazi zion finalerdian (10-7) eta finala jokatzeko txartela eskuratu zuen. Hainbat jokalarik gaixo zirela egin behar izan zion aurre partidu horri eta, hirugarren zatira arte ondo eutsi bazion ere, azkenean amore eman behar izan zuen 1. Maila Nazionalen jokatzeko



duen Askartza taldearen aurrean. Emakumezkoen taldeak, bestalde, erraz galdu zuten finalerdian Leioarekin (19-4). Baina hirugarren eta laugarren postuetarako borrokan 9-4 irabazi zioten Claret azken

Euskal Herriko liga txapeladunari eta txapelketako hirugarren postua bereganatu zuten. Bestetik, Miren Urizar Espainiako kadete mailako kontzentrazioan izan da Valentzian.



Ander Barrenetxea eibartarra nagusitu zen Aramotz mendi lasterketan

Barrenetxeak sasoiaren dagoela erakutsi zuen aurreko domekan Zornotzan jokatuak Aramotz mendi lasterketan. Ibilbide oso teknikoa eta gogorra izaten duen proban, irabazleak 3 ordu, 12 minutu eta 58 segundo behar izan zituen 32 kilometroak osatzeko, eta 2 minutu eta 7 segundo atera zizkion bigarrenari. Kilometro guzti horiez aparte, gainditu beharreko desnibela ere ez da nolana hikoia (2.000 metro, hain zuzen) eta horrek las-

terkari askok proba bertan behera lagatzea ekarri zuen; hala ere, 81ek amaitu zuten. Anderrek atzetik aurrerako lasterketa egin zuen, proba indartsu amaituz, eta bi kilometroren faltan aurretik zuena harrapatu eta lasterketa buruan jarri zen, amaierara arte postu horri ondo eusteko. Proba berean izan zen Iñaki Serrano eibartarra ere: azken honek 55. postuan amaitu zuen eta lasterketa amaitzeko 4 ordu, 55' eta 35" behar izan zituen.

Mikel Gaztelurrutia pianojole eibartarra Coliseo Antzokian izango da gaur, 20:30ean, bere azken lanarekin. "Walk" erritmo afrokubatarrez beteta dagoen disko etniko eta jazzeroa da. Zalantza barik, erritmoa da "Walk" en ildo nagusia eta, eibartarrarekin batera, Michael Olivera perkusionista eta Toño de Miguel kontrabaxua izango dira taula gainean.

1970. urtean jaioa, ibilbide luzea dauka Mikelek pianojole, moldatzaile eta konpositore bezala. Telebistarako lanak egin ditu, musikari ospetsuekin jo izan du eta proiektu desbedinetan ibili da ("Mikel Gaztelurrutia trio", "The new jazz voices ensemble", "Brazilian Sextet"...). Bere bi diskoak, "The new jazz voices ensemble" eta "Walk" Donostiako Jazzaldian erakusteko aukera aparta izan du eta, orain, 2019an kaleratuko duen hirugarren diskoaren prestaketan murgilduta dago. Aldi berean, jazz piano klaseak ematen ditu Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan.

MIKEL GAZTELURRUTIA (musikaria):

"Bizitza bera da inprobisazioa"

- Iruñetik Coliseo Antzokira etorriko zara gaur, eibartarroi "Walk" zeure azken diskoa aurkezteko. Nola zaude?

Lau-bost aldiz egon naiz Coliseo Antzokian, bi pianotara Bartzelonako Joan Diazekin, Mikel Andueza nafartar saxofonistarekin, "The new jazz voices ensemble" diskoarekin... Coliseo Antzokia oso ondo gelditu zen orain dela urte batzuk egin zuten erreforma eta gero. Oso toki atsegina da jotzeko, luxu bat. Noizean behin etortzen naiz Eibarrera bisitan, familiarekin edo lagunekin egoteko, baina gutxitan, egia esan.

- Prestakuntza musikal bikaina daukazu, goi mailako musika irakaskuntzan diharduzu eta proiektu batetik bestera dabilen pianojole, moldatzaile eta konpositorea zara. Baina joan gaitezen hasierara...

Jolasean hasi nintzen musikan. Nire etxean piano bat jarri zuten, eta musikarekin jolasteko eta esperimentatzeko aukera izan nuen. Telebistan eta irratian entzuten nituen doinuak kopiatzen nituen. Fase ludiko hori oso interesgarria dela uste dut, hau da, ikasketa formalak egiten hasi au-

rretik musika jolas bat bezala bizitzea oso inportantea da. Izan ere, gaur egungo hezkuntza sisteman, orokorrean, horrela erakusten zaie haurrei, jolastuz eta esperimentatuz. Etxean afizioa neukala ikusi zuten eta, orduan, serio hasi nintzen.

- Gogoratzten dituzu zeure lehenengo piano irakasleak?

Bai, eta gainera oso oroitzapen onak ditut. Bi irakasle izan nituen, Ana Alberdi eta Laura Gorrotxategi. Oso jatorrak ziren, pazientzia handikoak. Garai hartan, normala denez, handik eta hemendik ibiltzea gustatzen zitzaidan. Gaztetxoa nintzen eta, batapean, baxu elektrikoa jotzen hasi nintzen talde batean. Piano irakasleek pianoarekin jarraitzeko eta pianoan zentratzeko esaten zidaten eta horretara animatu ninduten. Niretzako amatxo batzuk izan ziren, kariño handiarekin tratatu ninduten.


- Bartzelonara joan zinen Goi Mailako Kontserbatorioan piano klasikoak ikastea. Nola deskubritu zenuen jazzak?

Piano klasikoak ikasten nuen garaian beste musika mota batzuk entzuten nituen eta, eure artean, jazzak asko erakartzen ninduen. Jazzaren ikutu hori, harmonia ga-

zi-gozaok, eta, batez ere, inprobisazioaren kontua sartu zitzaidan buruan. Jazzean sarkontzeko eta ikasteko gogoia piztu zitzaidan. Paino klasikoak amaitzen nengoela, poztasun handiz hasi nintzen jazz pianoa ikasten, jazzak musika sortzeko hainbat baliabide ematen dizkizula ikusi bainuen. Jazz oso musika irekia da, hainbat estilo, erritmo eta autore batzen dituen. Joan Diez, Iñaki Salvador, Charles Loos eta Bruno Louiserekin ikasteko aukera izan nuen. Oinarri oso ona eman zidaten, nire ustez, eta hortik aurrera nire kontu ibiltzeko esan zidaten.

- 2001etik jazz piano irakaslea zara Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan. Zer moduz konpontzen zara jende gaztearekin eta nola egiten duzu hainbeste gauzatan sartuta egoteko?

20 urte inguruko ikasleak ditut, eta goi mailako ikasketak egitera etortzen dira. Nire lana gustatzen zait, batez ere ikasleak ikasten duenean, eta, egia esan, irakaskuntzan gauza asko ikasten dira, batez ere pazientzia izaten eta psikologia apurtxo bat edukitzen... Oso lan polita da. Noizbehinka nekagarria, batez ere



kontzertuak pilatzen zaizkidanean, baina bizitza ordenatu bat eduki ezkeru, ondo eraman daiteke.

- Belaunaldi berriekin harreman zuzena izatea aberasgarria ikusten duzu, bezaz. Zelan ikusten dituzu gaur egungo gazteak?

Denak izan gara gazte eta estilo desberdinak entzutea eta gustatzea normala da. Heldutasunaren oinarria hor hasten da, eta musikalki kurioa da ikustea gaurko gazteei ze musika gustatzen zaien, zer eta nola kontsumitzen duten. Gaur egun musika entzuteko iturriak asko dira, internet daukagu eta oso erraza da autore baten edo beste baten kantu bat entzutea. Gure garaian askoz ere zailagoa zen. Diskoen prestamoia egiten genuen, eta irradian edo telebistan entzuten geunena asko gustatzen bazitzaigun, orduan diskoa erostera joaten ginen. Gaur egun dagoen informazio guzti hori ez dut txarto ikusten, baina hainbeste informazioaren artean aukeraketa ona egitea da konplikatuena. Hainbeste bertsio daude eurek ikasi behar duten abesti bati buruz azkenean zoratu egiten direla. Bartzelonan ikasten nengoela, tronpetista zahar batek anekdota interesgarria kontatu zidan Txikian zenean, bere etxean ez zegoen diskorik, eta ez zuen musika entzuteko mediorik. Baina etxean irratia zeukan lagun bat zuen. Hiru lagun etxe horretara joaten ziren irrati musika saioa entzutera, arkatzarekin eta paper pautarekin, eta hiruren artean saiatzen ziren entzundakoa kopiatzen. Kriston akontezimendua zen!!! Momentuan antzeman be-

“Gaur egun informazio asko dago, eta aukeraketa ona egitea da zailena”

har zituzten notak eta informazio guztia. Sarritan zuzeneko musika izaten zen, eta beste batzuetan diskoetako

- 2016ko bukaeran atera zenuen “Walk”. Zer ezkututzen da lan horren barruan?

Baneukan gogoia disko eritmiko bat egiteko. Jazzaren oinarrian dauden afrokubatar eritmoek beti atenzioa eman didate, eta baneukan gogoia eritmo horiek hartu, konposaketak egin eta jazzaren ikutuarekin eta harmoniekin nahasteko. Kuban oso musika nahasketa interesgarria ematen da. XVI. mendean espainiarrak eta portugesak Afrikatik eraman zituzten esklabuak Kubara. Gauza txarretatik onak ere ateratzen dira: Afrikako leku desberdinetako esklabuak elkartziren han, elkar ezagutu zuten eta abesti, instrumentu eta eritmo desberdinak partekatu zituzten euren artean. Gainera euren “ugazaben” kultura

“Javier Gorosabel ‘Firi’rentzat eguna hastea abentura bat zen”

musikala ere ikasi zuten. Garai hartatik hona mestizaje itzela gertatu da. Diskoan hori guztia jaso nahi izan dugu.

- Zergatik “Walk” (ibili) izena?

Gizakia beti dabil alde batetik bestera leku hobea baten bila. Euskaldunak ere migranteak izan gara. Batzutan bizitzak leku batera eramaten zaitu, eta, bestetan, bestera. Hori ere niretzako eritmoa da. Bizitzan gertatzen zaizkigun gauzek, txikiak zein handiek, gure bizitzan eritmo bat sortzen dute. Hori guztia da “Walk”. Bizitza bera, mugimendua bera, inprobisazioa da: askotan gauzak kontrolatu egin nahi ditugu, baina badaude kontrolatu edo lotu ezin daitezkeenak, eta askotan horiek solte utzi behar ditugu edo guztiak konbinatu.

- Azken abestia, “Alpha, Gamma & Omega”, 2015ean hil zen Javier Gorosabel ‘Firi’ astrofisiko eibartarrari eskainita dago...

Txikitatik ezagutu nuen. Zoro samarra zen, bagenekien izarrak eta astrofisika oso gogoko zituela eta gure pop taldera gonbidatu genuen, bateria jotzeko. Astrofisikaren alorrean eminentzia bat bihurtu zen gure laguna. Berarekin nuen harremana oso aberasgarria zen. Jakituriaz beteta zegoen, eta bere laneko gauzak ez ezik beste gauza batzuk ere intesatzen zitzaizkion. Berarentzat eguna hastea abentura bat zen. Bizitza ikertzaille baten ikuspuntutik ikusten zuen eta berak aporteratzen zuen filosofia oso freskoa eta aberasgarria zen. Zientzia eta erlijioari buruz asko hitz egiten genuen, eta horregatik jarri nion izen hori abestiari.

NAFARROA OINEZ 2018
URRIAK 21 - ALTSASU

Nafarroa Oinez urriaren 21ean Altsasun

IRTEERA

AUTOBUS ZERBITZUA

9 euro

09:00ean Ego Gain kaletik

BUELTA

19:00etan

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte ...eta kitto! Euskara Elkarte

Funeraria·Ehorztetxe
Mugica

EIBAR

Beilatokia
 Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
 SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ 943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

MIKEL GARAIZABAL (enologoa):

“Ikasteko eta gozatzeko gogoia duen edonor etor daiteke ardoa dastatzera”

Ardoaren kulturaren dibulgatzailea da Mikel Garaizabal. 1996. urteaz geroztik dago murgilduta ardoaren munduan eta 700dik gora dastaketa saio egin ditu. Eibarren ere izan dugu noizbait, eta urriaren 17an berriz izango dugu berarekin ardo-dastaketa egiteko aukera ‘...eta kitto!’ Euskara Elkartean. Hilaren 10era arte egongo da zabalik izena emateko epea eta 3 euro ordaindu beharko dira.



- *Nolako ardoak dastatu ahal izango dira hilaren 17an?*

EAEEn egiten diren produktuak sustatu eta ezagutzera emateko proiektua garatzen gabiltza HAZI fundazioarekin elkarlanean, eta dastaketa ezberdinak eskaintzen ditugu horren harira. Kasu honetan txakolina eta Araba-Errioxako ardoa dastatuko ditugu, eta kontsumitzaileria informatu eta hezitzeaz gain, aurkeztutako produktuen atzean zer dagoen ikusaraztea da helburua. Modu atsegin eta dibertigarrian egingo dugu, eta berba teknikoak erabili gabe txakolinak eta Araba-Errioxako ardoak zein ezaugarria dituzten azalduko dugu. Hiru txakolin (Getariko, Arabakoa eta Bizkaikoa) eta Araba-Errioxako bi ardo dastatuko ditugu.

- *Nolako gauzak hartu behar dira kontutan dastaketa egiteko momentuan?*

Ibilbide enologiko bat egingo dugu, gure zentzumenekin zerbait aztertuz. Ardo bat dastatzean zerbait etorri ahal zaigu gogora (masustak, bainila...), baina askotan ez dakigu ziur zer den sentitzen dugun hori. Beraz, sudurra hezituko du-

gu jolasekin eta ikusmena, dastamena eta ukimena ere trebatuko ditugu. Jolasekin hobeto ikasten da. Zein lurrin, zapora eta kolore dauden erakutsiko diogu gure garunari.

- *Dastaketa gidatuek ardoaren dastaketa aberasten dute?*

Usaimenak gure egunerokotasunean nolako garrantzia duen ikusiko dugu jolasen bidez. Usaimenarekin elikagaiak onak dauden edo ez jakin dezakegu, eta bitzita salbatu ahal dugu baita ere (etxean gas-jarioa badago, adibidez). Gizakiok ez diogu garrantzia ematen usaimenari, baina edozein elikagai ahora eramaten jasotzen ditugun sentsazioen %70 lurrinak dira. Katarroa dugunean, adibidez, lurrinak bereizten dituen nerbio edo sentsore hori anestesiatuta edo hilda egoten da, eta edozein elikagai ahora eramaten dugunean ez dugu inolako zaporerik nabaritzen. Ardo-dastaketa honetan logika bilatuko diegu egunero egiten ditugun gauzei.

- *Gaian trebatuta edo entrenatuta joan behar dira dastaketara?*

Ez horixe! Ardoa eta euskal produktuak gustatzen zaizkion edozein pertsonarentzat dago zuzenduta dastaketa. Ikasteko eta gozatzeko gogoia duen edonor etorri daiteke.

- *Txakolina edatea modan jarri da azken urteotan?*

Txakolinak gero eta kalitate handiagoa dauka. Orain dela 25 urteko txakolinak eta gaur egungoak ez daukate zerikusirik. Sektorea profesionalizatu egin da, jende hezitua sartu da, mahasti-zaintzan eta bitikulturari lan asko egin da, eta hori asko nabaritzen da. Kalitatezko produktua daukagu eta hobea izatea lortu behar dugu. Oso txakolin onak daude merkatuan eta jendeak baloratu egin du. Bizi diren tokian produktu zoragarriak dituztela konturatu dira kontsumitzaileak.

- *Zentzu horretan euskal herritarrek pribilegiatuak gara?*

Bai, eta ez bakarrik ardoarengatik, elikagaiengatik ere bai. Euskal Herria herri txikia da, baina lehengai zoragarriak ditugu eta demaseko kultura gastronomikoa daukagu.



Maria Zambranoren omenezko dantza

Egunean “Maria Zambrano, la palabra danzante” dantza ikuskizuna eskainiko du Karlik Danza Teatro taldeak, 20:30ean Coliseoan. Ikuskizun honekin Maria Zambrano espainiar filosofoari omenaldia egin nahi izan dio Karlik Danza Teatro konpainiak, bere heriotzaren 25. urteurrenean. Ia mende erdia exilioan eman eta gero, Espainiak Maria Zambranoren figurari aitortza egin zion eta 1981an Komunikazio eta Humanitateen Asturiasko Printzea Saria eman zioten. Handik urte batzuetara, 1988an, lehen emakumezkoa izan zen Miguel de Cervantes Literatura saria jasotzen. Sarrerak 9 euro balio du (6’5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Eguraldia lagun, giro ederrean eman zuten barixaku gaua Txaltxa Zelaiko auditoriora joandakoek, Hanka-motxak bertso eskolak antolatuta egin zen bertso saio musikatuan. Beñat Gaztelumendi, Miren Artetxe, Jokin Bergara eta Alaiia Martin bertsolariak primeran erantzun zituzten Manu Goigoganak bota zizkien gai guztiak, Ixak Arruti eta Gari Otamendik ipinitako musikaren erit-mora eta saioa ikustera joandakoek oso gustora entzun zituzten bertsolarien ahotik irtendako guztiak.



Eguenean zabalduko dute Liburu eta Disko Azoka Untzagan

Aurten ere martxan izango da Eibarko Liburu eta Disko Azoka Untzagan, Udalaren eta Euskadiko Liburu Ganbararen eskutik. Urteroko martxan, azokan ipiniko dituzten postuetan musika eta literatura eskaintza zabala, erosteko aukera izango da, gainera prezio berezian. Eguenean zabalduko dute azoka eta urriaren 21era arte egongo da martxan, asteleheneetik barixakura 11:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.

Zabalik dago zapatuetako tailerretan izena emateko epea

Astelehenean zabaldu zuten 5-11 urte bitarteko hurrei zuzenduta antolatzen dituzten Zapatuetako Tailerretarako aurrematrikula epea. Parte hartu nahi dutenek internet bidez eman beharko dute izena, www.astixa.eus webgunean (urriaren 15ean amaituko da epea). Kantak eta jolasak, udazkeneko eskulanak, artilezko eskulanak, dantza garaikidea eta magia tailerrak izango dira udazken honetan eskainiko dituzten tailerrak. Beste batzuetan bezala, oraingoan ere adinaren arabera sailkatu dituzte tailerrak eta bakoitzak bere egutegi eta ordutegia izango du. Tailerren informazio zehatza ikusteko eibar.eus helbidean begiratu.



Giro ederrean ospatu zuten Gaztetxe Eguna

Azken orduko arazoak tartean, gauerako aurreikusita zeuden kontzertuak bertan behera geratu arren, egunpasa polita egin zuten zapatuan, Gaztetxe Eguna ospatzera animatu zirenek. Eguerdian ekin zioten egitarauari, Guridi ingurutik abiatu zen karro-poteoarekin eta ondoren gaztetxean bazkaldu zuten. Eta arratsaldea girotzeko, terrazan mojito jaja egin zuten gazteek. Plan biribila benetan!

Bertso-paper lehiaketako epea astelehenean zabalduko da

Urriaren 8tik azaroaren 8ra arteko epea egongo da San Andres bertso-paper lehiaketarako lanak entregatzeko. Aurreko edizioetan moduan maila bi izango ditu lehiaketak: 16 urtetik gorakoek lau puntu edo gehiagoko 6 bertso aurkeztuko dituzte gutxienez, eta irabazleak 300 euroko saria jasoko du eta bigarrenak 250 eurokoa. 16 urtetik beherakoak bertso bat edo bi kopla aurkeztuko dituzte, eta irabazleak liburua eta txapela irabaziko ditu, eta bigarrenak liburua eta plaka. Bertsoak postaz edo eskuz entregatuko dira ...eta kitto!-n, Urkizu 11 solairuartea.

Kzguneko eskaintza

Beti bezala, Eibarko Kzgunek hilabete honetarako ikastaro eskaintza zabala prestatu du. Planifikatutako ikastaroen artean, besteak beste, honako hauek eskainiko dituzte: "Oinarrizko Internet" (internetera gerturatu, PC bat zer den ezagutu, ikasi nabigatzen eta posta elektronikoa erabiltzen...); "Smartphonak eta tabletak" (Android sistema eragilearekin lan egiten duen tablet/smartphone bat erabiltzen ikasi); "Facebook" (sarearen bidez zure ezagunekin harremanetan ipini, dokumentuak partekatu...); eta "Google Aplikazioak" (gure denbora eta informazioa hobeto kudeatzen ikasteko). Horrez gain, etxeko ordenagailutik egiteko moduko beste ikastaro batzuk ere eskaintzen dituzte. Ikastaro guztiak doan dira.

Sanandresetarako kartel lehiaketa

Urriaren 11n itxiko da aurtengo San Andres jaietarako kartel lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Kartelaren gaia egileak aukeratu dezake, baina "Sanandresak Eibarren" esaldia eta urtea idatziz agertu beharko dira nahitaez. Lanak lemapean aurkeztu beharko dira, internet bidez edo Pegoran, eta egileak ondorengo datuak eman beharko ditu: kartelaren lema, adin-tarte (10 urte arte, 11-14 urte bitartekoa ala 15 urtetik gorakoa), egilearen adina eta izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta e-maila. Informazio gehiago nahi izanez gero, eibar.eus helbidean begiratu.

Logotipo lehiaketa

Unibertsitate Laboralaren 50. urteurrenarako logotipo lehiaketa antolatu dute. Lanak formato digitalean aurkeztu beharko dira, cincuenta.unilab@gmail.com helbidera bidalita. Bakarka zein taldeka hartu daiteke parte, baina egile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu. Proposamenak bidaltzeko epea azaroaren 30ean itxiko da eta irabazlea zein den abenduaren 10ean emango dute ezagutzera. Saria 200 euroko balioa duen bonoa izango da. Lehiaketari buruzko informazio zehatza www.ehu.eus/es/web/eibar/50urteurrena-logo-lehiaketa helbidean kontsultatu daiteke.

Albertiren poesiara gerturatzeko antzezlan

Bihar arratsaldean, 17:00etan "Alberti, un mar de versos" umeentzat bereziki prestatutako antzezlan aurkeztuko du Teatro de Malta konpainiak Coliseoan (sarrerak 5 euro balio du). "Alberti, un mar de versos" mugimenduan, keinuan, emozioetan, errimoetan eta irudietan poesiaz beteta dagoen ikuskizuna da. Proposamen eszeniko honetan disziplina desberdinek bat egiten dute eta, horri esker, poesia gozamenarekin lotzea lortu dute. Izan ere, lan honen egileen asmo nagusia publikoa poesiara gerturatzeko da eta, horrekin batera, "mundu propioa deskubritzen eta sortzen laguntzea, jokitik, hausnarketatik eta Rafael Albertiren legatutik abiatuta". Artearen esparruan, jendearentzat zerbait gustokoa bilatzeko oso garrantzitsuak izaten dira lehen kontaktuak eta, hori jakinda, ikuskizuna osatzeko orduan asko zaindu dira osagarriak diren elementu plastikoak, "ikuskitzen ira-



dokitzailea, harrigarria, melodikoa, ludikoa eta pentsakorra lortu arte. Musika, dantza, dramaturgia, bideo-sorkuntza, espazio eszenikoa eta jantziak, dena Rafael Albertiren eta haurren zerbitzura". Marta Torresek zuzentzen duen lanean parte hartzen duten antzezleak Ana Varela eta Delfin Caset dira.

5. edizioa	6. edizioa	7. edizioa
5. edizioa	6. edizioa	7. edizioa
PERRETIXIKOEN MITZALDIA	PERRETIXIKOEN BILKETA ETA SALKAPENA	PERRETIXIKOEN ENKANTUEN ETA DAKERTZEN
OSADIA: OSORRENTZEN ETXEDIA	PERRETIXIKOEN ANKAKETA ETA SALKAPENA	Produktu mikologikoen irakurketa
OSADIA: OSORRENTZEN ETXEDIA	Produktu mikologikoen irakurketa	Produktu mikologikoen irakurketa
OSADIA: OSORRENTZEN ETXEDIA	Produktu mikologikoen irakurketa	Produktu mikologikoen irakurketa

Jardunaldi Mikologikoak inoiz baino azkarrago

Arin dator Eibarko Klub Deportiboko Mendi Batzordeak antolatutako Jardunaldi Mikologikoen XX. edizioa. Oraingoan urria hasi eta berehala ospatuko dugu gaurtik domekara arte hainbat ekitaldi izango dituen asteburua. Gaur "Onddoak, biodibertsitatearen giltzari" hitzaldia eskainiko du Joxepo Teres Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak Deporren bertan 19:00etatik aurrera. Aranzadikoak kolaboratzaile finak bihurtu dira Jardunaldiotako azken urteotan eta hurrengo egunean ere, bihar, Klub Deportiboan izango dira goizez bildutako perretixikoen aukeraketa eta sailkapena egiten.

Zapatu goizean, 08:15ean, perretixikoak biltzeko eskoletako haurrentzako irteera antolatu dute. Autobusak Ego Ginetik irteerako du eta izenematea ikastetxeetan egin dezakete. 16:00etan hasiko da lehen esandako jasotako perretixikoen sailkapena eta domekan zatirik gozoenarekin amaituko dira jardunaldiak. Goizeko 10:30etik eguerdiko 14:00ak arte perretixikoak erakutsiko dira, euren ezaugarrien fitxarekin, eta horrez gain dastatzeko aukera ere izango da Toribio Etxebarria kalean. Euriak ez badu kontrakorik esaten, orduan udaletxearen arkupeetara aldatuko baita ekitaldia.


Kezkaren dantza-eskoletarako matrikulazioa zabalik oraindik

Klub Deportiboko Kezka dantza taldearen eskutik gidatutako dantza-eskolak (6 urtetik gorakoentzat) abian dira, Portaleko 3. solairuko dantza-gelan, baina animatuz gero matrikula epea oraindik zabalik dago. Nagusientzat, berriz, iazkoari jarraituta ikastaro bereziak emango dituzte, "plazako euskal dantza tradizionala ikasi eta dantzatzeko gozatzeko" honako aukera zabalarekin: hasiberrientzat, martitzenetan (19:00etatik 20:00etara) eta eguenetan (11:00etatik 12:30era); eta jarraipenkoentzat, berriz, martitzenetan (10:00etatik 11:30era edo 20:00etatik 21:00etara), eguenetan (09:30etik 11:00etara) eta barixakuetan (17:30etik 19:00etara). Talde guztientzat matrikula epea zabalik dago oraindik. Informazio gehiago eskatzeko eta izena emateko kezka@dantzan.com helbidera idatzi edo 943 53 04 40 zenbakira deitu.



Eibarren egindako bizikleten erakusketa zabalik Museoan

Urriaren 21era arte izango da "Eibarko bizikletagintza Carlos Narbaiza funtsan" izenburuko erakusketa ikusteko aukera, Eibarko Armagintzaren Museoan. Erakusketa 60. eta 90. hamarkaden artean Eibarren egindako 14 bizikleta (Abelux, B.H., Cil Orbea, G.A.C. eta Torrot) eta gure herriko lantegi auxiliarretan bizikletentzat egindako pieza ezberdinak bildu dituzte. Ikusgai ipini dituzten piezek Carlos Narbaizaren familiak 2015ean Eibarko Udalarik Armagintzaren Museoko Funtsa berritzeko emandakoaren zati txiki bat osatzen dute.



Egun osoko Maritxu Kajoi gaur ARRASATEN


Dotore jantzita kalera irten eta jai-giroan antolatzen den ospakizun berezi hori goizetik abiatuko bada ere, arratsaldetik aurrera izango ditu ekitaldi gehienak: 17:30ean Potx eta Lotx pailazoak izango dira Seber Altube plazan, 18:00etan jazz&fusion musik ikuskizuna eskainiko du BraZZtet MV Brass Band taldeak, 19:00etan Oria txaranga izango da kaleak girotzen, 21:00etan flashmob-lipdub-argazki erraldoia aterako dute txosnagunean eta, 00:00etatik aurrera, dantzaldia izango da Luhartz taldearekin. Hortik aurrerakoa gaupaseroen esku geratuko da.



“Comunicado de muerte” domekan ELGETAN

Domekan, 19:00etan, Banarte Antzerki Taldeak “Comunicado de muerte” antzezlan aurkeztuko du Elgetan, Espaloia Kafe Antzokian. Rafa Herce idatzitako lanak Salvador Puig Antich, frankismoan heriotza-zigorra ezarrita 1974ko martxoaren 2an Bartzelonan garrotez hil zuten anarkistaren heriotza kontatzen du. Lan honek Arte Eszenikoan Espainiako Sari Nagusia jaso zuen 2017an. Zuzendaria Eduardo Pombar da eta antzezleak, berriz, Rafa Herce bera eta Mikel Uriguena dira. Intxortako erresistentziaren 82. urteurrenaren harira antolatu duten egitarauaren barruan eskainiko dute antzezlan eta sarrera dohainik izango da.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Jose M^a Orbeagoz Iraola. 97 urte. 2018-IX-26.
- Cristina Areskurrinaga Etxeberria. 84 urte. 2018-IX-26.
- Oswaldo Gabilondo Iñarrairegi. 82 urte. 2018-IX-27.
- Sole Txurruka Kortaberria. 92 urte. 2018-IX-29.
- M^a Luisa Elorza San Martin. 82 urte. 2018-IX-30.
- Benigna Sarasketa Maiztegi. 96 urte. 2018-IX-30.
- Gregorio San Vicente Urbina. 93 urte. 2018-X-1.
- Juan Okamika Berasqueta. 78 urte. 2018-X-3.

jaiotakoak

- Jare Aldazabal Gumbau. 2018-IX-26.
- Lea Ibarbia Bilbatua. 2018-IX-26.
- Yuri Tongiani Blanco. 2018-IX-27.
- Iker Uriel Garcia Contreras. 2018-IX-28.
- Julen Varona Zubia. 2018-IX-29.

farmaziak

- Barixakua 5**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Zapatua 6**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Domeka 7**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 8**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Martitzena 9**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Eguaztena 10**
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguena 11**
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Barixakua 12**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI - 2018AN-
Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
EMAITZA

8	4	6	2	5	1	3	7	9
2	5	3	7	9	8	1	6	4
9	1	7	4	6	3	8	2	5
4	3	9	5	7	2	6	8	1
5	7	1	6	8	9	4	3	2
6	8	2	1	3	4	5	9	7
1	6	8	9	2	5	7	4	3
7	9	4	3	1	6	2	5	8
3	2	5	8	4	7	9	1	6

		3	5	9	2			
	4	2						
					8		2	1
				2	4	7	9	
2			9		1			8
	9	6	7	8				
5	3		1					
						1	4	
			8	5	7	9		

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....902 10 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 5

BIRZIKLAPENA

16:00/19:30. Beirazko ontzien bilketari buruzko informazio puntua. Jolasak eta tailerrak. Untzagan.

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

19:00. "Onddoak, biodibertsitatearen giltzarri" hitzaldia, Joxepo Teres Aranzadi Zientzia Elkarteo kidearen eskutik. Klub Deportiboan.



ORAIN PRESOKAK

19:30. "Orain Presoak" ekimenaren barruan urriaren 20an Donostian egingo den manifestazioaren aurkezpena egiteko agerraldia. Untzagan (harmailetan).

MUSIKA

20:30. Mikel Gaztelurrutiaren kontzertua, "Walk" diska aurkezteko. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.



Zapatua 6

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

08:15. Perretxikoak biltzeko irteera, ikasleentzat. Autobusa Ego Gainetik irtengo da.
16:00. Perretxikoen aukeraketa eta sailkapena egingo dute Aranzadi Zientzia Elkarteo kideek. Klub Deportiboan.

MANIFESTAZIOA

12:00. Pentsio duinen aldeko manifestazioa, Adinekoen Elkartearen Plataformak eta Gipuzkoako Pentsiodunen Mugimenduak deituta. Untzagatik hasita.

SAGARDO EGUNA

12:00/14:30. XXV. Sagardo Eguna, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik.
19:00. Arratsaldeko saioa, sagardoa agortu arte.
21:00. Mugi Panderoa eta Deus Ez taldeen kontzertua (harmailen aldean). Untzagan.

1983-AN JAIOTAKOAK

12:50. Talde-argazkia Kultural aurrean.
13:00. Piskolabisa, Ongi Etorri tabernan.

1953-AN JAIOTAKOAK

13:00. Izena eman dutenak Untzagan elkartuko dira.
13:30. Taldearen argazkia.
14:00. Pintxo-potea, Koskor tabernan.
14:30. Bazkaria eta dantzaldia, Kantu orkestarekin. Unzaga Plaza hotelean.
20:30. Ongi Etorri tabernan tragoa.
22:00. Mokadutxoa, Gazte Gogor elkartearen.

ANTZERKIA

17:00. "Alberti, un mar de versos" (Teatro de Malta). 5 euro. Coliseoan.

Domeka 7

KILOMETROAK

09:30. Urretxu-Zumarragan ospatuko den Kilometroak jaira joateko autobusaren irteera, Toribio Etxebarriatik (buelta 19:00etan).

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

10:30/14:00. Perretxikoen erakusketa eta dastaketa. Toribio Etxebarria kalean (euria bada, udaletxeko arkupeetan).

Astelehena 8

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatuz eta pentsiodunen kontzentrazioa, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan (udaletxe parean).



Martitzena 9

IKASTEN

16:00/19:00. Punto-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

IRAKURKETA-KLUBA

19:30. Helduen irakurketa-kluba: "Las chicas" (Emma Cline). Dinamizatzailea: Peru Magdalena. Portalean.

Eguaztena 10

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 11

DANTZA

20:30. "Maria Zambrano, la palabra danzante" (Karlík Danza Teatro). 9 euro (6'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Erakusketak

Urriaren 7ra arte:

– ARRATE KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN LANAK (*Topaleku*)


Urriaren 14ra arte:

– "7/7" ERAKUSKETA GRAFIKOA: RAISA ALAVA, IÑAKI ELOSUA, JAVIER IDIRIN, BEÑAT KROLEM, JUANJO ORTUBIA, OMER ZABALLA, ALAZNE ZUBIZARRETA (*Portalea*)


Urriaren 21era arte:

– "EIBARKO BIZIKLETAGINTZA CARLOS NARBAIZA FUNTSAN" (*Eibarko Armagintzaren Museoa*)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, IZEI Aranberri Zubizarreta, astelehenian 3 urte! Zure irribarre horrek zoratuta gaitu! Milla musu, mutil haundi.



Zorionak, IKER, etzi 4 urte beteko dozuz-eta! Patxo potolua etxekuen eta, batez be, Ane, Julen eta Maddiren partez.



Zorionak, LAIA, gure printzesak astelehenian 6 urte beteko dituu-eta. Musu haundi bat amatxo eta aitaixoren partez.



Zorionak, ANER, atzo 7 urte egin zenduaz-en-eta. Familixa guztiaren eta, batez be, Danel, Noa eta Lukaren partetik.



Zorionak, BERNAT, atzo urtetxua egin zenduan-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Oinatz eta Lur-en partez.




Zorionak, MARKO! Ondo ospatu bixar 8 urte betetzen dozuzela! Aroa eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE, domekan 10 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, JUNE, astelehenian 2 urtetxo beteko dozuz-eta. Aitaixo eta amatxoren partez.



Zorionak, JULEN, astelehenian 3 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, XUBAN, gaur 9 urte betetzen dozuzelako. Ondo pasau, txapeldun, etxeko danon partez.



Zorionak, JUNE, gure printzesa!! Urriaren 8xan 2 urte beteko dozuz-eta!! Musu asko Izar eta Olatzen partez.



Zorionak, LEIRE, domekan 21 urte beteko dozuz-eta! Musu potolo bat famelixaren partez.



Zorionak, MARTINA Aizpirtarte, gaur gure printzesak 2 urtetxo betetzen dituu-eta. Segi beti bezain alai. Etxekuen partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
6an: 19:45, 22:30
7an: 20:00
8an: 20:30

"Johnny English. De nuevo..."
Zuzendaria: David Kerr



(2 ARETOAN)
6an: 19:45, 22:30
7an: 17:00, 20:00
8an: 20:30

"Book Club"
Zuzendaria: Bill Holderman



(ANTZOKIAN)
6an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30
7an: 17:00^(1 Aretoa), 20:00
8an: 20:30

"Venom"
Zuzendaria: Robert Fleischer



(ANTZOKIAN)
6an: 17:00^(2 aretoan)
7an: 17:00

"Al aire, patos"
Zuzendaria: Chris Jenkins



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Bikoteak 2-3 logelako pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Ahal dela igogailuarekin. Tel. 633-868143 eta 649-538289.
- Errioxako Santo Domingo erdigunean pisua salgai. Berritzeko. Prezio onean. Tel. 675-803734.
- Pisua alokagai Urki Kurutzekua, 12an. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. 83 m². Eraikin berria eta pisu argitsua. Hilerro 700 euro. Tel. 607-534881.

2. Motorra

2.1. Salgai

- 1999 Volkswagen Passat V 1.9 TDi salgai, egoera onean. 1.800 euro negoziagarriak. Tel. 678-075299.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Pabilioia alokatzen da Elgoibarko Olaso poligono industrialean. 200 m² + 70 m² solairuaratean. Tel. 649-258913.
- Lokala alokagai Eibarko erdigunean. Akademia edo kontsultarako egokia. 100 m². Tel. 606-065518.
- Lokal komertziala alokagai Birjiñape 1ean (Sokoa ondoan). 33 m². 250 euro. Tel. 688-678934.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 685-036902. Adriana.
- Mutil arduratsua eskaintzen da sukaldari jarduteko. Esperientzia. Tel. 622-321095.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 680-103356.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta ume, nagusi edo gaixoak zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 632-372153.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta ume, nagusi edo gaixoak zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 632-472167.
- Emakumea eskaintzen da gaeuz nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-733573.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. Tel. 675-965130.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. Tel. 605-598999.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 619-906093.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 622-677230.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 631-975260.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 600-335778.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 617-810972.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko: pegorak, pisuak... Tel. 631-141454.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko: pisuak, pegorak... Tel. 651-864873.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 646-821678.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 631-532426.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 612-476921.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 612-253569.
- Ile-apaintzailea eskaintzen da. Esperientzia. Tel. 697-848931.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-955875. Sandra.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-143476. Evelyn.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 635-587617.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Disponibilitate osoa. Tel. 642-986019.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 631-891709.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. Tel. 602-158176.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. Erreferentziak. Tel. 655-677035.
- Neska eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Tel. 612-571335.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 631-498697.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-292264.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 693-811168.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-203168.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-277037.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 692-932984.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbitzeko asteburuetan. Tel. 633-808931.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 642-184769.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 612-263294.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-657380.
- Mutila eskaintzen da sukalde-laguntzaile jardun, igeltsero moduan, nagusiak zaindu, garbiketarako egin eta txakurrak ateratzeko. Tel. 695-466286. Leonardo.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egin, umeak edo nagusiak zaindu, sukalde-laguntzaile jardun eta txakurrak ateratzeko. Tel. 695-466352.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egin, sukalde-laguntzaile jardun eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 663-273321.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 698-696194.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 622-131664.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta beste lan batzuetarako. Tel. 643-413526.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-562523.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 631-907532.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 689-798284.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-181849.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 632-381938.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gaeuz ere. 18 urteko esperientzia. Tel. 659-908513.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gaeuz eta ospitalean ere. Tel. 659-908513.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-793487.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da adineko emakumea zaintzeko. Behar-beharrezkoa Diputazioak eskatzen duen akreditazioa izatea. Ordu-tegi: 09:30/11:30 eta 20:30/21:30. Tel. 646-206088.
- Psikologoa behar da Eibarren zentru psikotekniko batean lan egiteko. Idatzi: maria-suncc@gmail.com
- Pertsona euskalduna behar da umea goizez eskolara eramateko. Tel. 676-069244.
- Azpeitiko No+Vellok langilea behar du: Estetizista-titulua, laser depilazioan edo IPL-n esperientzia, komertzial dohaiak eta euskerka maila ona baloratuko dira. Bidali curriculum: azpeitia@nomasvello.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Neska euskalduna eskaintzen da Matematika, Fisika eta Marrazketa klaseak emateko. Baita umeak zaintzeko ere. Tel. 688-678199.
- Neska euskaldunak LHko klase partikularak ematen ditu arratsaldean. Tel. 647-615265.
- C1 ingeles maila duen ikasleak ingelesezko klase partikularak ematen ditu. Tel. 688-800913. Eider..
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.4. Bestelakoak

- Erdialdeko garajea Urkizuko beste batekin trukatu nuke. Tel. 676-069244.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu

Logopedak

AHOTS-LAN

LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.

943 202691

ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa

Disfonia

Ikaste-arazoak

Arreta arazoak

Berba arazoak

Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

AROR

PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Berba

logopedia

AIDA CORTA ANTÓN

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. 0004)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

Okulistak



Oftalmologoak

Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI

www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartera

943 20 19 82



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• Presbiziaren kirurgia.

F.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)



ELENA AIZPUN

PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208



BIDEARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA

Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA



Maider
Lopez
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO


T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak



AMETS

PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina - Master Praktika Klinikoan
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.

Tel. 675 70 68 07

- Trainer



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66

Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia

PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. EIBAR
Zuberoa, 4 ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Urkizu, 13 - behe

Tel. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22

moreno_iciar@yahoo.es

Itziar Moreno

PSIKOLOGOA

KOLEG. ZKIA. 1947

GIZENTASUNA
ANTSIETATEA
AUTOESTIMA
ARAZOAK

943 12 02 00
URKIZU, 13 - 1.

ORBEAKO
DORREETAN

centro médico eibar

Psikoterapia



RPS: 32/17

PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)
94 416 49 06

furizar1@yahoo.com

Azken atari berria salgai UBITARTE GAIN ELGOIBAR

3 LOGELA 230.000 € + bez -tik aurrera

%68

SALDUTA

ERAIKUNTZAN



Teilatupeko espazioak dituzten **ATIKOAK**

Soto-solairuko espazioetara
sarbidea dituzten **BEHE-SOLAIRUAK**

**GUZTIAK
BARNE**



ETXEBIZITZA



ARMAIRUAK



SUKALDEA



PERTSONALIZAZIOA

Ongi etorri!

943 316 586

sukia

Zure etxean zaude Estás en tu casa

www.sukia.com

**grupo
LAZKANO**

www.grupolazkano.com